2026-11-06 OSTIRALA
35. ZENBAKIA

DEBABARRENEKO ASTEKARIA
BARRENA.EUS / TOKIKOM.EUS

Barrena

KULTURA

Ermuko kaleak agertoki bihurtuko ditu 'Foru bizia' ikuskizunak

Pispillu Abesbatzaren parte-hartzearekin, antzerkia, dantza eta musika uztartuko ditu emanaldiak / 18



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

KULTURA

'Irure' liburua ondu du Francis Larrañaga Guridik, izen bereko Soraluzeko baserri-auzoari buruzkoa / 23



UBANE MADERA ZANGITU

Mendaroko lehoia, argitara aterea

Iberiar penintsulan agertu den ale heldugabe baten eskeleto oso bakarra da, duela 31.500 urte inguru hil zen lehoi batena / 4-6



Behetik gora: Burumendi Espeleologia Taldeko Kemen Lertxundi, Oier Zulaika eta Nerea Arrizabalaga eta Asier Gomez-Olivencia EHUko paleontologoa. BURUMENDI ET

INGURUMENA

Euskal Kostaldeko Geoparkeak beste lau urtez eutsiko dio Munduko Geoparke izendapenari / 24

MOBILIZAZIOAK

Azaroaren 11ko greba orokorrarekin bat egitera deitu dute, elkarrekin, Debarroko sindikatuek / 6

EKONOMIA

Altzolako iturburuak 250 urte bete dituela ospatzeko ekitaldia egingo dute gaur Elgoibarren / 8-9



SAREA



Gau ilunena, festa giroan

Neguaren hasiera iragartzeko eta hildakoak oroitzeko antolatzen duten Arimen Gaua edo Gaba Beltza indarra hartzen dabil; Debabarrenean ere bai, bistan denez

Izaro Aulestiarte DEBABARRENA

Arimen Gaua, Gaba Beltza, Gau Beltza... Askotariko deitura, molde eta egitarauekin izan arren, udazkenetik negurako egun gero eta ilunagoen bueltan Europa osoan ospatu ohi den jaiak irudi bizi eta koloretsuak laga ditu gurean ere, beste urte batez.

Joan den larunbatean, urriaren 31n, egin zituzten neguari hasiera emateko eta hildakoak gogoratzeko antolatutako ospakizun ekitaldi nagusiak Debabarreneko herri gehienetan, baina ez guztietan; izan ere, zenbait lekutan, Elgoibarren kasu, bezperara aurreratu zuten aurtengo ospakizuna.

Lekittoko Deabruak, Deabru Beltzak eta Zo-zongo! konpainia ezagunen ikuskizun gogoangarri eta ikusgarriak ez ezik, adin eta gustu askotariko herritarrei zuzendutako ekitaldiak izan dira aukeran eskualdean, bai asteburuan, bai aurrez ere. Tartean izan dira, adibidez, heriotzaz hitz egiteko hitzaldiak eta topaketak, ipuin-kontaketa saio bereziak, eskulan tailerrak, *beldurraren etxeak* nahiz misterioz betetako ibilbideak, kluedoak eta haurrentzako ginkanak.

Osterantzean, herri eragileen ekimenez ondutako ospakizunek festa giroan ohikoak diren osagaiak izan dituzte, hala nola dantzak, kantaldiak, musika, mozorroak, gozoki-eskeak, kalabazak, beldurren erretzeak, *arimen ibilbideak* eta kalejirak.

Jende andana batu da tokian tokiko jaialdietan, eta irudi hauek dira horren erakusgarri; lagin txiki bat baino ez da, ordea. Argazki eta bideo gehiago bildu ditugu *barrena.eus* atarian.



Lagun kuadrilla bat, Elgoibarren, mozorrotuta, ikara sortzeko prest. A.A.



Alex Etxegibel, Elgoibarren, Maalan, ipuina kontatzen. A.O.



Arratsaldeko ekintzetan parte hartu zuten haurretako batzuk, Mendaroko plazan, mozorrotuta. AINARA ARGOITIA



Deabru Beltzak taldekoak, plaza bete lagunen aurrean, Mendaron. A.A.



Lekittoko Deabruak, Soraluzen, suzko dragoiak egiten Plaza Zaharrean. U.M.Z.



Ibilbide misteriotsuko ipuin kontaketa, Soraluzen, Goiko kalean. U.M.Z.



130 lagun inguru batu ditu Ermuko kluedo misteriotsuak. GARAZI MENDIETA



Mozorroak eta musika izan dira Ermuko Gau Beltzeko disko-festaren protagonista. GARAZI MENDIETA



Kantuan eta gozoki eskean eman zuten gaua Mallabiko gaztetxoenek. ANDREA ROMANO



Beldurrak paperean idatzi eta suan erre zituzten mallabitarrek. ANDER GOMEZ



Psycho clown ikuskizunak girotu zituen Debako kaleak ostiralean. N.B.A.



Jendetza batu zen Deban hirugarrenez egin duten Arimen Gaueko ospakizun nagusira. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA



Giro ederrean ospatu zuten Gaba Beltza Itziarren. LAGATAKOA

Pleistozeno Berantiarrekoa da Ormolako lehoia, eta duela 31.500 urte inguru hil zen

Iberiar penintsulan agertu den ale heldugabe baten eskeleto oso bakarra da; Mendaron topatu zuten



Monica Villalba de Alvarado paleontologoa, garezurra ateratzen. BURUMENDI ESPELEOLOGIA TALDEA

Ainara Argoitia MENDARO

Asteartean aurkeztu zuten ofizialki Irungo Gordailuan 2023an, Mendaron, Arno mendiko Ormola Bide Ondoko Leizean, aurkitu zuten lehoiaren eskeletoa. *Arkeoikuska* aldizkariaren azken zenbakian dator jasota aurkikuntza, baina, han xehatutako datu eta ezaugarriez gain, berriak ere jakinarazi zituzten aurkezpenean. Gauza ezaguna zen, esaterako, *Panthera spelaea* espezieko 2-3 urte bitarteko lehoi ar baten eskeleto osoa zela Mutrikuko Burumendi Espeleologia Taldekoek topatu zutena, baina asteartean jakinarazi zuten Pleistozeno Berantiarreko lehoi batena dela; eta hori bat dator erradiokarbono bidezko datazioarekin, zeinaren arabera duela 31.500 urte inguru hil zen lehoi batena den hezurdura. Debabarrenetik, Mendaroko eta Mutrikuko alkate Enetz Ezenarrok eta Ainhize Azpiazuk eta Burumendi Espeleologia Taldeko ordezkari Joseba Aramaiok, Nerea Arrizabalagak eta Roberto Sotok parte hartu zuten aurkezpenean, agintari, paleontologo eta arkeologoekin batera.

Bi aurkezpen-hitzaldi

Aurkikuntzaren berri emateko bi hitzaldi antolatu dituzte orain: bata Mutrikun izango da, azaroaren 23an, Zabiel Kultur Elkartean, 19:00etan; eta bestea, Mendaron, azaroaren 25ean, udaletxean, ordu berean. Asier Gomez-Olivencia eta Alvar Manjon paleontologoak eta Mutrikuko Burumendi Espeleologia Taldekoak arituko dira hizlari.

"Espezie oso baten eboluzioa ulertzeko izango da lagungarri"

ASIER GOMEZ-OLIVENCIA PALEONTOLOGOA



Asier Gomez-Olivencia paleontologoa, Mendaron. BURUMENDI ESPELEOLOGIA TALDEA

Paleontologoa eta giza eboluzioan espezializatutako doktorea da Asier Gomez-Olivencia (Barakaldo,1979), eta hura izan da Ormola Bide Ondoko Leizean industen jardun duenetako bat. Era berean, hark zuzendu du lehoiaren inguruan Alvar Manjon Garciak master amaierako lanerako egin duen ikerketa-lana, Monica Villalba de Alvarado paleontologoarekin batera.

Zein da aurkikuntza horren balioa?

Batetik, haitzuloetako lehoi baten ia hezurdura osoa topatu izana. Fosiltzea guztiz ezohikoa den prozedura bat da, eta lehoiak, harrapari handiak izanik, ekosistemaren elika-sarearen goiko aldean daude. Ondorioz, ale gutxi daude ekosistemetan. Beraz, halako aurkikuntzak egiteko aukerak murritzak dira. Izatekotan, 60-100 urtean behin gertatzen diren gauzak dira hauek. Horregatik, lehoien inguruan daukagun informazioa antzinako bisonteen eta oreinen inguruan daukagunarekin alderatuz, adibidez, oso da urria. Kontuan hartu behar dugu beste gauza bat: hezurdura zenbat eta osoago egon, informazioa lortzeko aukera orduan eta handiagoa da, eta bildutako datu metriko guztiek aukera emango dute Europako haitzuloetako lehoien erregistro fosilekin alderatzeko eta espezie horren hazkuntza-eredua hobeto ulertzeko. Oraingo honetan, aukera izan dugu hainbat hezurretan neurriak konparatzeko, eta, gainera, erradiokarbono bidezko datazio zehatza izanda, ikusi ahal izan da lehoi espezie hura txikituz joan zela denboran, harik eta Europan espeziea galdu zen arte –Eurasiako ekosistemetan bizi izan ziren ia milioi bat urtez, eta duela 14.000 eta 12.000 urte bitartean galdu ziren–. Ez da, beraz, hezurdura horrek ematen duen informazioa bakarrik; espezie osoaren eboluzioa ulertzeko izango da lagungarri aurkikuntza.

Beraz, animalia beraren hezur asko topatu izanak egiten du aparteko?

Bai. Mendarokoa aztarnategi paleontologikoa da, baina, izatez, lehoien aztarnak agertu izan dira aztarnategi arkeologikoetan ere. Topatu dira falange solteak, hortz-ale banaka batzuk, baina gutxitan hezurdura osoak. Soltean topatutako hezur horiek ere izan dezakete beren testuinguru kronologikoa, baina hemen hezur asko topatu dira, eskeleto oso baten %85 bat. Eta hori, paleontologian, eskeleto osoa topatzea beste da. *Lucy*, adibidez, osorik dagoela esaten da [1974ko azaroaren 24an Etiopian topatu zuten *Australopithecus afarensis* espezieko hominidoaren hezurdura], ornoen erdiak inguru falta zaizkion arren.

Iberiar penintsulan topatu direnekiko zer du horrek berezia?


Iberiar penintsulan topatu diren gehienak lehoi helduen eskeletoak dira, eta oraingoa, berriz, lehoi heldugabe batena da; itxura guztien arabera, 2-3 urte bitarteko ar batena. Letaginen zabaleratik ondorioztatu dugu arra zela, espezie horretan diformismo sexuala dagoelako, eta haren humero hezurra neurtuta jakin dugu 180 bat kilo zituela –500 kilo izatera iritsi zitezkeen Erdi Pleistozenoko aleak–. Zein adinekin hil zen, berriz, epifisien fusio mailatik kalkulatu da –Alvar Manjonen master amaierako ikerketa-lanaren eta abian duen tesiaren ikerketaren emaitzak dira–. Zer ikusi den? Hazi ahala fusionatzen diren hezur batzuk oraindik fusionatu gabe dauzkala. Hau da, hezur batzuk, adibidez falangeak eta metatartsoak, jada guztiz fusionatuta ditu, eta, aldiz, tibiaren gune proximala oraindik fusionatu gabe dauka. Zer duen bereizgarri? Iberiar penintsulan topatu den *Panthera spelaea* espezieko ale heldugabe baten eskeleto oso bakarra dela.

Espeziea bera txikitzen joan zela diozu. Zertan oinarritzen zarete? →

⟶ Alvar Manjonek Europako ehun aztarnategi baino gehiagotan topatutako lehoien datuak alderatu ditu bere lanean. Ormolakoa ez da lehoi txikiena, baina bai Pleistozeno Ertaineko lehoiak baino nabarmen txikiagoa. Ez dakigu zergatik joan ziren txikitzen, akaso gizakiaren presioagatik edo beste lehoi batzuekin gurutzatu zirelako, eta ikertu egin nahi da hori. Balea urdinarekin ere gertatu da. Orain 100 urte, 33 metrokoak ere baziren, baina arrantzagatik-eta txikiagotzen joan ziren, azkarrago ugaldu ahal izateko. Eta hemen ikusten dena da gure espeziea, *Homo sapiens*-a, Europara sartzen hasi zenetik animalia batzuk galduz joan direla. Neandertalak izan ziren galtzen lehenengoak duela 40.000 urte. Gero, hienak, duela 30.000 urte inguru; leizeetako hartzak ondoren, duela 25.000 urte, eta galtzen azkenetakoak leizeetako lehoiak izan ziren, duela 14.000-12.000 urte. Prozesu haiek ez ziren bat-batean gertatu, eta klima aldaketak ere izan ziren denbora-tarte hartan; beraz, horri buruz hausnartzeko bidea ere ematen digu eskeleto honek. Horri guztiorri buruz ikertzea gure aurrean ispilu bat jartzea ere bada.

Eta haren ezaugarri antzekoak dituen besteren bat aurkitu al da hemen gertuan?

Bai, 1966an, Arrikrutzen (Oñati). Hura, baina, lehoi heldu baten eskeletoa zen –uste da gutxi gorabehera 1-1,2 metro garai zela eta 250 kiloko pisua zuela–. Beste eskeleto osorik ez da topatu Euskal Herrian; hezur banaka batzuk bai, ordea. Aurten aurkeztu dugu beste aurkikuntza bat, Urbasako Arrafela leizekoa (Nafarroa). Han ere *Panthera spelaea* espezieko lehoi baten fosilak aurkitu dira, baina hemen baino gutxiago. Ez da eskeletoaren %25era iristen han topatu dena, eta %25 topatzea izugarria da, e!



Lehoiaren hezurduraren muntaketaren irudi bat. ASIER GOMEZ OLIVENCIA/ALVAR MANJON GARCIA

Europako zein leinu genetikorekin lotu daiteke Ormolako lehoia?

Ikerlerro hori zabalik daukagu. DNA analisietarako laginak hartu ditugu, Vienako Unibertsitateko talde batekin lankidetzan, eta ikusiko dugu zer datorren hortik. Permafrostean edo izoztutako lekuetan topatutako aztarnen informazioa daukagu orain arte, bereziki, eta, Europara etorrita, Alemaniakoa eta Europa ekialdekoa, baina Iberiar penintsulakoez gutxi dakigu. Badakigu espezie hartako lehoiak aspaldi banandu zirela Afrikako lehoiengandik, baina ez dakigu gero zer gurutzaketa gertatu diren, eta hori aztertu nahi da, besteak beste.

Kobazuloetan bizi al ziren lehoi haiek?

Haitzuloetako lehoiak esaten diegun arren, ez ziren leizeetan bizi, nahiz eta haien aztarna fosil gehienak ingurune karstikoetan topatu diren. Beste animalia hilen baten usainean, hiena talde batek eramanda edo hartzen baten kumeak ehizatzera sartu zitezkeen, adibidez, kobazulora, eta gero, han, galdu. Ormolako lehoiari ez dakigu zer gertatu zitzaion, baina, leizearen geometria ezagututa, hipotesi nagusia da erori egin zela, gaur egun estalita dagoen sarreraren batetik. Euskal Herrian Kuaternarioko fauna ornodunaren inguruan daukagun informazio gehiena kobazuloetatik atera dugu, baldintza egonkorrak daudelako haietan fosilen kontserbaziorako. Badauzkagu tranpa naturalak izan diren leizeak ere. Mutrikuko Kiputx IX, Goi Pleistozenoko aztarnategi paleontologikoa, adibidez. Arkeologikoki tranpa natural bat bezala funtzionatu izan zuen sei metro inguruko sakonerako leize bertikal hark, zeinean milaka animalia ustekabean erori baitziren azken glaziazioan –duela 24.000 eta 13.500 urte bitartean–. Ihes egin ezin zutenez, han bertan hiltzen ziren.

Ezer gehitu nahiko zenuke?

Espeleologoek egin duten lan ikaragarria goraipatu nahi nuke. Azpimarratuko nuke haiek egin duten esplorazio eredugarria eta izan duten eskuzabaltasuna. Aldundira, Aranzadira eta EHUra abisatu zuten, eta sarbidea erraztu ziguten, industu eta aurkikuntzaren garrantzia eta balio zientifikoa han bertan egiazta genezan. Halako aurkikuntza baten parte hartzea beti da handia paleontologo batentzat, baina espeleologo haien ondoan lan egitea ikaragarria izan da. Lan egiteko leku zail batean izan dugun lan-giro ederra azpimarratuko nuke, bai eta prozesu honetan jaso dugun material grafiko guztia ere. Politena hori da.

"Egin duguna baino gehiago da zelako talde-giroan egin dugun"

NEREA ARRIZABALAGA ETA JOSEBA ARAMAIO BURUMENDI ESPELEOLOGIA TALDEKOAK

Sokak, zakuak, kaskoak, buruko argiak... dena txukun-txukun esekita dute Burumendi Espeleologia Taldekoek lokalean. 2018an sortu zuten taldea, izen bereko mendi elkartearen aterkipean, eta beren lokalean hartu gaituzte Nerea Arrizabalagak eta Joseba Aramaiok. "Pozarren" daude: batetik, horrenbeste denboran isilean gorde dutena kontatu ahal izan dutelako; eta, bestetik, aurkikuntzak espeleologiak zientziarekin duen lotura aldarrikatzeko balio izan duelako. "Aurkezpenean ere esan dut: gu ez gara zuloetara kaloriak erretzera sartzen. Gu zientziaren zerbitzura ari gara", esan du Aramaiok. Hasierako balorazio zientifikoa egitean, nahiz gero, fosilak dokumentatzeko, induskatzeko eta berreskuratzeko prozesuan erakutsi duten profesionaltasuna aitortu diete, publikoki, paleontologoek eta arkeologoek, eta eskertu egin diete izan duten diskrezioa. Hemezortzi bat kide dira taldean, eta, modu batera edo bestera, denek parte hartu dute aurkikuntza horretan.

Nola iritsi zineten lehoiarengana?

N.A.: Arnoko katalogoan 160 koba eta leizetik gora dauzkagu identifikatuta, tartean hau, eta horietako batzuk berriro esploratu nahi genituen, gaur egungo begiradarekin. Ormola Bide Ondoko Leizea zen horietako bat, taldekide batzuek ezaguna zutena, baina beste batzuek ez. Itzuli egin ginen hara, eta, esploraziorako instalazioa prestatzen ari ginela, sabai freatiko bat topatu genuen, bidea eman ziguna pentsatzeko ⟶



Mutrikuko Burumendi Espeleologia Taldekoak. EUREK LAGATAKOA

⟶ kobazuloa luzeagoa izan zitekeela. Bigarrengoz joan ginenean topatu genituen hezurrak; Foru Aldundiari eta Aranzadiri jakinarazi genien, eta Asier Gomez EHUko paleontologoarekin harremanetan jarri ginen. Aldi hartan, hezurdura guztia balizatu egin genuen, arriskuan ez jartzeko, eta kobazuloa esploratzen jarraitu genuen, hasieratik garbi ikusi genuelako beste sarrera bat izango zuela garairen baten, gaur egun lohiz betea dagoena. Behin esplorazioa amaituta –kanpotik nahiz barrutik–, eta paleontologoekin eta arkeologoekin lankidetza estuan, buru-belarri heldu genion fosil horiek dokumentatzeko, induskatzeko eta berreskuratzeko prozesuari. Kobazuloaren ezaugarriak direla-eta ez zen lan erraza izan. Izan ere, eskeletoa 2x1 metro pasatxoko eremu irregular batean sakabanatuta zegoen, galeria estu eta aldapatsuan. Lanerako leku hotza eta konplikatua zen, eta egun batzuetan bederatziz orduz ere jardun genuen han lanean.

J.A.: Lehoia mantendu den moduan mantentzeko arrazoietako bat hori da: ez dela kobazulora sartzen erraza. Baina hori gaur, duela 31.000 urte nolakoa zen jakitea zaila da eta. Hirugarren solairuan, esaterako, erreka handi baten arrastoak daude. Pentsa!

Nolakoa da kobazuloa bera?

N.A.: Arnon dago, Ormolako parajean, eta, izatez, ezaguna da. Sarrera estuko kobazuloa da, eta, sartzeaz batera, 7-8 metroko jauzia dauka, gero galeria horizontal ikusgarri baten zabaltzen dena. Bi arrakaletan behera eginda iristen da bigarren solairura, bi aldetara zabaltzen den beste galeria batera. Alde baten 30 metroko jauzi bat dago, *bolaua* esaten dioguna, pareta ukitu gabe jaitsi behar delako, eta, handik, hamabost bat metro eskalatuta, katua topatu genuen lekura iristen da.

Zer sentitu zenuten hezur haiek guztiak ikusi zenituztenean?

N.A.: Talde handia ginen; batzuk, leizea miatzera joandakoak; beste batzuk, kobazuloetan gerta daitezkeen istripuetan zaurituak ebakuatzeko erabiltzen diren erreskate-tekniketan trebatzera joandakoak. Hezur haiek guztiak zer ziren ez genekien, baina, hasieratik, gauza handia izango zen itxura hartu genion hari. Baraila eta haginak garbi ikusten ziren, eta Arrikrutzeko lehoiarenak ere ikusiak genituen.

J.A.: Handik gutxira, bilera egin genuen, eta erabateko diskrezioz jokatzeko konpromisoa hartu genuen. Erabaki genuen ez genuela ohikoak ditugun kronikarik idatziko, ezta hezurren argazkirik zabalduko ere webgunean, eta ez genuela Whatsappez ezer esango. Adostu genuen gure artean ere *Arnoko katua* deituko geniola hari, eta ez lehoia, arretarik ez emateko. Hain zen ederra dena, ezen katua agertu zen galeriari gure taldekide biren alaba jaioberriaren izena eman diogun: Enara.

Nola atera zenituzten fosilak?

J.A.: Paleontologoek gidatu gintuzten, eta erreskate-teknikak baliatuta atera genituen, tirolinak, kontrapisuak... erabilita. Guk jaitsi eta igotzeko erabiltzen genuen sokaren paraleloan beste instalazio bat muntatu genuen, material hori guztia paretak ukitu gabe atera ahal izateko. Izugarrizko lana izan zen. Kobazulo barruan pilatzen genuen materiala, eta, hiruzpalau petate osatutakoan, zortzi-hamar lagun aritzen ginen haiek ateratzen. Guztira, hemezortzi bat lagun. Burumendiko guztiak eta gure lagun Bittor Abendaño eta Pedro Intxaurraga. Suhiltzailea da Bittor, eta argazkilari bikaina [Aramaio bera da argazkilari lanak egin dituen bestea], eta behar genuen halako bat. Pedro, berriz, esperientzia handiko espeleologoa da, eta laguntza eskatu genion instalazio hura muntatzeko. Taldean aritu gara, eta asko ikasi dugu. Eta egin ditugun sarrera guztietan istripu txikirik ere ez dugu izan. Eta hori, sinetsi iezadazu, ez da zorte kontua.



BURUMENDI ESPELEOLOGIA TALDEA

Zer ikasi duzue?

N.A.: Paleontologia zer den. Asier Gomezen aginduetara jardun dugu, 2023ko maiatzean Euken Alonsok lehoi-aztarnen kokapen espaziala dokumentatzeko fotogrametria egin zuenetik. Hark gidatu gaitu une oro, eta hark esandako moduan dokumentatu dugu dena, atera aurretik. Asko ikasi dugu. Han aritzen zen Asier, mimo eta kontu handiarekin hezurtxoak libratzen, eta gu, zain, begira, hark prestatutako fitxak bete eta jasotzeko, kate-lanean. Eta aurkezpenean hezur haiek guztiak elkarren ondoan jarrita eta irudia osatuta ikusi dugunean sentitu duguna ezin da hitzez adierazi. Hantxe zegoen gure katua, geure-geurea sentitu duguna urte hauetan guztietan.

J.A.: Gogoratzen naiz humeroa garbitu eta Asierrek hura jasotzeko eskatu zigunean ez ginela ausartzen hezurra eskuan hartzen, bi zatitan egingo zitzaigun beldurrez. Tentsio horrekin jardun genuen lanean. Nolanahi ere, egin duguna baino gehiago da nolako talde-giroan egin dugun. Asko aberastu eta indartu du horrek gure taldea.

Debarroko sindikatuek A11ko grebarekin bat egitera deitu dituzte herritarrak

ELAk, LABek eta Etxebizitza Sindikatuak mobilizazioak antolatu dituzte bailaran

Egoitz Unamuno Loidi DEBABARRENA

Azaroaren 11n, Hego Euskal Herrian Greba Orokorra egiteko dei bateratua egin dute ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek, Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak eta Etxebizitzaren Sindikatu Sozialistak, irakurketa bateratuarekin. Grebaren bitartez aldarrikatuko dute espekulazioa "debekatu" behar dela eta etxebizitza eskubidea dela, eta "ez negozioa", eta, horrekin batera, eskatuko dute gutxieneko soldatak 1.500 eurokoa izan behar duela –aurtengo martxoaren 17ko greba orokorrean ere halaxe eskatu zuten–. Sindikatuek Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua interpelatu dituzte, etxebizitzaren arloan "eskumen zabalak" dituztelako, eta patronala, Confebask eta CEN, "langile klasearen prekarizazioa betikotzen dutelako". Debarroko ELAk, LABek eta Etxebizitza Sindikatu Sozialistak bere aldetik ere dei egin diete debabarrendarrei greba orokorrarekin bat egin eta eskualde mailan eta herriz herri antolatuko dituzten mobilizazioetan parte har dezaten.



ELAko, LABeko eta Etxebizitza Sindikatuko ordezkariak Eibarren. GARAZI MENDIETA

Mobilizazioak Eibarren eta herrietan

Mobilizazio nagusia, eskualde mailakoa, asteazken eguerdian egingo dute Eibarren. 11:30ean, bi zutabe abiatuko dira hiriko bi lekutatik, bata, Uni Eibar-Ermuatik eta bestea, Urkizutik, eta bi zutabeak Untzaga plazan elkartuko dira eguerdiko hamabietan. Handik elkarrekin manifestazioan abiatuko dira Eibarko kaleetan barrena. Arratsaldean, mobilizazioak herrietan egingo dira. 18:00etan, Etxebizitza Sindikatu Sozialistak mobilizazioak deitu ditu Ermuan, Eibarren eta Deban. Horrez gain, beste herri batzuetan ere antolatuko dituzte mobilizazioak, esaterako, Soraluzen, kasu horretan, herriko greba batzarrak deituta.

NIRE USTEZ

Berrizko mallabitarra



ANAKOTZ LASARTE
GIDOILARIA

Duela hiru bat aste, dei bat jaso nuen BARRENA aldizkaritik: "Mallabiko pertsona baten bila gabiltza idazteko noizean behin". Segituan etorri zitzaidan burura Eneritz Aranburu herritar eta lagunak bertan egin zidan elkarrizketa, zoragarria benetan. Beraz, ezin ezetzik esan.

Berrizen jaio eta bizi 38 urtean, Mallabia herriarekin topo egin nuen arte. Lehenengo, lanean hasi nintzen bertan; lanari esker, nire bikotekidea ezagutu nuen; eta orain, bertan bizi naiz emaztearekin eta semearekin. Berrizko mallabitartzat dut neure burua.

Mallabia *herri txiki, bihotz handi* da, lasaia bizitzeko; denok ezagutzen dugu elkar. Asko eskertzeko daukat Mallabiari eta mallabitarrei. Hasieran, oso harrera ona izan nuen, nola ez ba, "herriko koruko zuzendariaren mutil-laguna izanda...!".

Asko eman didan herria da: familia zoragarri bat, lagunak, maitasuna eta errespetua

Bastida taberna zen herriko *zentru kulturala;* bertan batzen ginen asteburuetan bizitza soziala egiteko. Taberna horrek asko erraztu zidan jendea ezagutzeko garaian; denok bertan batu, denok denokin hitz egin.... Berrizen egiten genuen moduan Fonda tabernan, Mallabian berdin Bastidan.

Hamabost urte daramatzat harro eta pozik bertan. Asko eman didan herria da. Familia zoragarri bat, lagunak, maitasuna eta errespetua, laguntasuna eta berotasuna.

Herri alaia eta gogorra da Mallabia. Nik daramadan denboran, makina bat herritar agurtu dugu; bai familiakoak, baita herritar gazteak ere: Egoitz, Igor, Ander... Agur krudelak, herria batu duten agurrak. Beti egongo dira gure memorian. Bizitzak horrela nahi izan du, onartzea besterik ez daukagu.

Mallabia, herri emankorra, herri eskuzabala benetan ere. *Aitatxo* dokumental-proiektuaren hasieran zerikusi handia izan zuten herritarrek. *Crowdfunding* bat egin zen finantzaketa lortzeko eta erantzun *brutala* eman zuen herriak. Babestua sentitu nintzen. Oraingoan, *Aitatxo*-ren kamisetak, poltsak eta tazak ere badaude herrian zehar; polita da jendea horiek soinean ikustea. Umetxoek ere badaramatzate, askotan eskolara doazenean, eta ni harro eta pozik.

Mallabia, *herri txiki eta bihotz handi,* oso eskertuta eta harro zuetariko bat izateaz.

GUTUNAK

1,5 graduko tenperatura igoera

A.I.Z.
ELGOIBAR

Nazio Batuen Ingurumen Programak (NBIP) jakinarazi du munduaren batez besteko tenperaturak 1,5 graduren langa gainditukо duela, eta bi gradutik gora igotzearen arriskuaz ohartarazi.

2015ean sinatu zen Parisko Hitzarmenak aurreikusten du tenperatura bi gradu baino gehiago ez berotzea, eta, ahal den neurrian, 1,5 gradutik gorako berotzera ere ez heltzea. Baina helburu hori dagoeneko ezinezkoa dela aitortu du NBEk; aukera ikusten du mende erdirako 1,8 graduraino iritsi ondoren hortik 1,5 graduraino jaisten hastea mende bukaera bitartean, pixkanaka.

Horretarako, herrialdeek askoz ere ahalegin handiagoa egin beharko lukete orain arte baino. Berotegi gasen isurketak %18 jaitsi beharko lirateke 2030erako; 2035erako, %45; eta 2040rako, %69.

Herrialdeen egungo politikei eusten bazaie, garbi dago 2,8 graduko berotzea iritsiko dela. Are, herrialdeek orain arte isurketak murrizteko hartutako konpromisoak beteko balituzte ere, 2,6koa izango litzateke berotze globala. Izan ere, herrialdeek hartutako konpromiso horien bidez, 2030erako isurketak %5,8 gutxituko lirateke, eta %11-15 2035erako.

NBIPk gradu hamarren bakoitzaren garrantzia azpimarratu du. Izan ere, 1,5 gradutik gorako hamarren bakoitzak zera eragingo du: muturreko fenomeno meteorologikoak handiagoak eta larriagoak izatea, eta atzera-bueltarik gabeko inflexio-puntuak gainditzea: Artikoko eta Antartikako izotz-masak ezegonkortzea, Amazonia narriatzea, Atlantikoko itsas korronteak aldatzea...

Denon ardura da klima aldaketaren aurkako neurriak hartzea, baina nazioek, bereziki, dagozkien murrizketak azkar, sakon eta iraunkorki ezartzen hasi behar dute, bestela akabo! Beste behin, berandu gabiltzala uste dut...

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / *barrena@barrena.eus*

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera, Ainhoa Andonegi, Izaro Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi, Ander Gomez, Asier Orbea, Egoitz Unamuno, Garazi Mendieta, Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta, Ubane Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Maketazioa
Zaloa Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
ELGOIBAR 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 37 04
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetan kolaboratzaileek emandako iritzien gaineko erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Debako Udala · Elgoibarko Udala · Ermuko Udala · Mallabiko Udala · Mendaroko Udala · Mutrikuko Udala · Soraluzeko Udala · Debabarreneko Garapen Agentzia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GIPUZKOA Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Altzolako uraren iturburua aurkitu zuteneko 250. urteurrena ospatuko dute

Gaur arratsaldean egingo dute 250. urtemuga ospatzeko ekitaldi ofiziala, Aita Agirren. Besteak beste, eskultura bat eta liburu bat aurkeztuko dituzte, eta langileei omenaldia egingo diete



Altzolako Gran Hotel bainuetxea. LAGATAKOA

Ainhoa Andonegi

Altzolako iturburuak 250 urte bete ditu 2026an. 1776. urtean aurkitu zuten hango uren iturburua. Negu gorria zen, eta, haur batzuk Deba ibaian bainua hartzen ari zirela, gune konkretu batean ur beroa irteten zela konturatu zen garai hartan Elgoibarko medikua zen Francisco Planzon. Berehala jabetu zen ez zela ustekabeko fenomeno bat, iturburu baten seinale garbia baizik.

Aurkikuntza haren garrantziaz jabetuta, Elgoibarko Udalari jakinarazi zion une hartan Alzola de Azpilcueta izeneko Gipuzkoako herrian sortzen zen ur hark aparteko balioa izan zezakeela. Jose Maria Urquia Echavek 1985ean argitaratutako *Historia de los balnearios guipuzcoanos* lanean dioenez, dastatze- eta indusketa-lanak geologo frantziar batzuek egin zituzten. Bi mende eta erdi pasatu dira aurkikuntza hartatik, eta Altzolako urak orduko propietate berei eusten die gaur egun ere.

Espeleologoek eta zientzialariek egindako ikerketen arabera, iturburuak duen altueragatik gertatzen da hori. Izan ere, Altzolako uren jatorria Izarraitz mendigunean dago, itsas mailatik mila metroko altueran eta itsasotik 12 kilometroko distantziara. Ondorioz, diotenez, 25 bat urteko bidaia egiten du ur horrek lurpean, Altzolara iritsi arte. Kareharrizko harkaitzek iragazki natural gisa funtzionatzen dute, eta, adituen arabera, horrek ematen dio urari kalitatea.

Etorkizuna aldatu zuen aurkikuntza

Iturburuaren aurkikuntzak erabat aldatu zuen Altzola. 1801. urtean ireki zituen ateak hango lehen bainuetxeak; garai hartan, Elgoibarko hiribilduaren jurisdikzioa zen Altzola. Eraikin diskretua zen, eta ondoren etorriko zen guztiaren oinarriak ezarri zituen. Bainuetxea iturburua azaleratzen zen lekuan bertan altxatu zuten, uraren jatorria eta azaleratze naturala errespetatuz. Mediku propioa zeukan Europako lehenengo bainuetxea izan zen.

1843an, Altzolako urak urrats garrantzitsua egin zuen, onura publikoko izendapena jaso zuen eta. Administrazioak propietate terapeutikoak aitortu zizkion ofizialki, eta adierazpen hark ur mineralen multzoan kokatu zuen Altzola.

1846an, Urberoaga bainuetxea inauguratu zuten; hitzak berak dioen bezala, iturburutik hartu zuen izena bainuetxeak, eta 1901ean zabaldu zituen ateak Gran Hotel Balneario hotelak. Bainuetxea izan zen urteetan herriaren motor ekonomikoa, eta garai batean hamaika hotel izan ziren Altzolan. 1893an, tren-geltokia jarri zuten martxan Altzolan, eta horrek areagotu egin zuen bisitarien etorrera. Goi-mailako aristokraziako jende asko etortzen zen Altzolako uren propietateak probatzera.


1976an itxi zuten bainuetxea, eta ura botilaratzeko instalazioak jarri zituzten bertan. Gaur egun, Alzola Basque Water izena dauka enpresak.

Ospakizuna

250. urteurrena ospatzea erabaki du Alzola Basque Water enpresak, eta gaur arratsaldean egingo dute ekitaldi ofiziala. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango da, eta, besteak beste, urteurrenari lotutako eskultura bat eta liburu bat aurkeztuko dituzte. Horrez gain, iturburuaren zaindariak omenduko dituzte, hau da, langileak, haiek zaintzen dute-eta iturburua.

Mediku propioa izan zuen Europako lehen bainuetxea izan zen Altzolakoa

Ibaian bainua hartzen ari ziren ume batzuek aurkitu zuten iturburua, 1776an



Altzolako irudi bat. LAGATAKOA



Gaur egun Alzola Basque Water dagoen eraikina. LAGATAKOA

"Bainuetxera etortzen ziren emakumeei izen-abizenak jarri dizkiet liburuan"

ANA ISABEL ESCRICHE ALZOLA BASQUE WATER ENPRESAKO ENBAXADOREA

Bainuetxera etortzen ziren 25 emakumeren historia jaso du 'Lo que el agua recuerda: mujeres en el balneario' liburuan. Gaur aurkeztuko du, Aita Agirren

Ana Isabel Escriche (Bartzelona, 1972) bidaia-blogaria, idazlea, argazkilaria eta eduki-sortzailea da. Bidaietan berebiziko garrantzia ematen dio urari, eta konturatu da zeinen zorionekoak garen iturria ireki eta ura irteten den herrialdeetan. Kasualitatez ezagutu zuen Altzola, eta liluratuta geratu zen. Alzola Basque Water enpresaren enbaxadore izendatu zuten, eta enpresaren sare sozialez arduratzen da gaur egun. Iturburuaren 250. urteurrenaren harira, liburu bat sortu du, bainuetxera etortzen ziren emakumeak ezagutzera emateko. Gaur aurkeztuko du liburua, Aita Agirre kulturgunean.

Nola ezagutu zenuen Altzola?

Bidaiaria naiz, eta egiten ditudan bidaien berri ematen dut blog batean, bereziki erakutsi nahi nuelako mundua ez dela arriskutsua. Askotan saltzen digute ideia hori, eta komunikabideek sarri zabaltzen duten mezua da. Ezagutzen ez denak beldurra ematen du, eta nik ezagutarazi nahi nituen ezagutzen nituen lekuak, beti oso esperientzia onak izan ditudalako. Horrez gain, bidaietan modu berezian ikusi izan dut ura. Indian, esaterako, buru gainean garraiatzen dute ura emakumeek; Kanbodian umeak iturri publikoetan ikusi izan ditut garbitzen... Konturatu nintzen hemen zorionekoak garela, ura daukagulako. Horretan ari nintzela, *Blog on branks* webgunean Altzolako uraren berri izan nuen. 2013. urtea zela uste dut, eta Altzolako Urak enpresa gainbeheran zegoen. Blog horretan inskribatu zen enpresa: doakoa zen, eta han izena ematen zutenen berri ematen zuen arduradunak. Ur botilak eskaintzen zituen Altzolak, produktuaren berri ematearen truke. Harremanetan jarri nintzen haiekin, eta etxera bidali zizkidaten ur botilak. Eskatzen zidatena zen sare sozialetan Altzolako uraren berri ematea.

Ur botilak jaso zenituenean, zer sentitu zenuen?

Harremana berezia izan zen paketea jaso nuen unetik bertatik. *Hauskorra* jartzen zuen kaxan, letra handiz. Kristalezko botila polit batzuk jarri zizkidaten, eta kontuz zaindu beharrekoa zen paketea. Urari eta Altzolari buruzko informazio pila bat ere bidali zidaten, eta gehien harritu ninduena Altzolako urak lurpean egiten duen 25 urteko bidaia izan zen. Ni bidaiaria, eta Altzolako ura ere bai! Berehala konektatu genuen.

Gogoratzen duzu egin zenuen lehen artikulua zeri buruzkoa izan zen?

Bai. Altzolak daukan berezitasunetik idatzi nuen artikulua, eta nabarmendu nuen herrialde garatuetan daukagun zortea, iturria zabaltzen dugunean ura irteten delako. Ur edangarria, kalitatezkoa eta ona. Kontatu nuen beste herrialde batzuetan umeak ezin direla eskolara joan ere, ur bila pasatzen dutelako eguna. Horrez gain, Altzolak beti eman izan dio garrantzia iturburuak garbi mantentzeari, eta gai horri ere egin nion aipamena. Askotan, ez gara konturatzen iturburua kutsatzen bada ez dagoela berreskuratzerik; kutsatutako iturburua hil egiten da.

Noiz eta nola etorri zinen estreinakoz Altzolara?

Sare sozialetan ikusi nuen argazki lehiaketa bat antolatu zutela, eta parte hartzea erabaki nuen. Oraindik baneukan ur botilaren bat etxean, eta argazki artistiko bat egin nuen. Zuhaitz lehor baten adarra hartu nuen, eta ur botilak jarri nituen alboan. Irudikatu nahi nuen lehortearen eta ura edukitzearen arteko kontrastea. Filtro batzuk aplikatu nizkion argazkiari, eta bidali egin nuen. Hiru argazki saritu zituzten; bat, nirea. Saria berezia zen: nire pisua emango zidaten, ur-litrotan. Baina ez zuen balio nik esatea zenbat pisatzen nuen, ez; Altzolara etorri, eta bertan pisatu ninduten. Altzolarekin maiteminduta geratu nintzen. Enpresa erakutsi zidaten, lantaldea ezagutu nuen, bainuetxeko historia guztia azaldu zidaten, eta, ikusi nuenean garai hartako bainuetxetik geratzen den apurra, liluratu egin nintzen. Jaso nuen informazio hura guztia munduari kontatu egin behar zitzaiola esaten nien arduradunei, eta ni neu hasi nintzen sare sozialetan Altzolaren berri ematen. Egiten nituen bidaia guztietara eramaten nuen Altzolako ur botilaren bat, eta toki guztietan ateratzen nituen argazkiak, Altzola munduan zehar ezagutzera emateko. Horren harira, Alzola Basque Waterreko enbaxadore izendatu ninduten, eta gaur egun sare sozialen arduraduna naiz. Opari bat izan da lan hau.

"NI BIDAIARIA NAIZ, ETA ALTZOLAKO URA ERE BAI! BEREHALA KONEKTATU GENUEN"

"BIDAIA GUZTIETARA ERAMATEN NUEN ALTZOLAKO UR BOTILAREN BAT, ETA TOKI GUZTIETAN ATERATZEN NITUEN ARGAZKIAK"



Escriche, eskuetan Altzolako botila batzuk dituela. LAGATAKOA

Urteurrena aitzakia hartuta, liburu bat idatzi duzu. Zertan datza?

2026a urte berezia da Altzolarentzat, iturburuaren aurkikuntzaren 250. urteurrena delako. Ospatzea erabaki genuen, eta liburu bat idaztea proposatu nuen. Ez da erraza garai hartako informazioa aurkitzea, eta, batetik zein bestetik tiraka ibili ostean, nahi genuena lortzen ez genuela ikusita, emakumeei leku egitea erabaki genuen. Aristokraziako jende asko etortzen zen Altzolara, baina denean gizonezkoen izenak agertzen ziren. Emakumeak beti ziren bataren edo bestearen emazteak, izenik izango ez balute bezala. Bainuetxera etortzen ziren 25 emakumeri jarri dizkiet izen-abizenak liburuan. Hain justu ere, Altzolako urak 25 urte egiten ditu lur azpian, Izarraitzetik Altzolara iristen den arte, eta guk ere 25 emakume bildu ditugu. Liburu arina da, norberak nahi duen ordenan irakurtzeko modukoa, eta, batez ere, humanoa da. Doan banatuko dugu liburua gaur arratsaldeko ekitaldian.

NIRE USTEZ

Neure izenean, ez



EDURNE IZAGIRRE
PSIKOLOGOA

1830 eta 1930 bitartean gutxienez 200.000 euskal langilek migratu zuten Amerikara; 1900ean euskaldunak milioi bat izanda, esanguratsua da datua. Amerikar kontinentean baziren 870 hizkuntza gutxienez, guztiak aurreindoeuroparrak, asko idatzien bitartez ezin izan direnak aztertu, geure euskara maitea bezala.

Amerikatik itzuli ziren euskaldunak asko izan ziren, neure birraitonamonak barne. Nire amamaren anaia zaharrenak etorri ohi ziren bisitan, euskal txapela jantzita, hango euskal jaiez hitz egiten. Ez dut gogoratzen bertako jatorrizko hizkuntzen eta kulturen inguruko aipurik; hizkuntza kolonizatzailea –eurentzat ezaguna– onartu zuten erlazioetarako eta lanerako, eta arbasoen hizkuntza eta kultura zaintzen saiatu ziren.

Euskararentzat kolpe bortitza frankismoaren kolonizazio estrategiaren barne industrializazio gunea Euskal Herrian finkatzea izan zen; langile behar handia sortu zuen horrek, eta Estatu mailako langile klaseko migrazio masiboa eragin. Horrela aldatu zen gure errealitatea, euskal herritarren erdia gaztelera hiztun bihurtuz, oraindik ere euskara gutxietsia zegoela.

1979tik da euskara hizkuntza ofiziala EAEn. Euskara eta euskal kultura arriskuan jartzen duena migrazio interkontinentala dela pentsatzera tentatuak zaudetenak pentsa ezazue, momentu batez, ez ote den barneratua duzun pentsamendu kolonialaren ondorio; zeren zeure burua zapalduekin kokatzeko nahian, agian, zapaltzaileen logikara jo duzu.

KLIK

Aitzulo



SAIOA RODRIGUEZ
ARGAZKILARIA

Araotz auzoan dagoen kobazulo bat da, Orkatzategi bidean geratzen dena. Bertan barneratzea antzinara bidaiatzea da, hango akelarreak eta sorginkeriak imajinatuz.



SEMAFOROA

Kaka-poltsak zintzilik

"Gabonetako apaingarriak balira bezala aurkitu izan ditut azkenaldian txakur-kakak. Jabeak poltsan jasotzen ditu kakak, baina gero, zakarrontzira bota beharrean, zintzilik lagatzen ditu. Ez dakit helburu duen zakarrontzi falta salatzea, baina ez zait iruditzen modua hori denik. Maltzagarako bidegorrian aurkitu izan ditut horrelakoak, baita Mintxetan ere. Mesedez, hori egiten duenari gainerako herritarrekiko errespetua



eskatu nahi diot. Nazkagarria da horrelakoak ikustea".

Sekuoia erraldoia lehortzen hasi da

"Udalak ba al dauka Bolatokiko sekuoia erraldoia zaintzeko planik? Sekuoia erraldoia herri honek daukan zuhaitz berezienetakoa da, eta konturatu naiz lehortzen hasia dagoela. Pena izango litzateke hiltzea eta moztu behar izatea. Berandu baino lehen, neurriak hartu behar direla iruditzen zait". Udalera jo dugu, eta erantzun hau eman digu Ion Zubiaurrek, Hirigintza arduradunak: "Udalak eskatu du dagoeneko zuhaitz horri buruzko informe tekniko bat, haren egoera zein den ezagutzeko eta, beharko



balitz, pausoak emateko. Udalak, ez sekuoia bakarrik, baizik eta herriko zuhaitzak zaintzeko zerbitzua du, plangintza baten barnean. Lanketa horrekin jarraituko dugu".

Jarlekua behar da

"Lehenago ere kexatu izan gara, baina ez digu inork kasurik egin. Toletxeko tren-geltokian jarlekua falta da. Adinekoek eta ezinduek zutik egon behar izaten dute trenaren zain. Geltoki zaharrean bazeuden eserlekuak! Ulergaitza da geltokia berritu eta jarlekurik ez jartzea. Leku falta ezin da arrazoi izan, lehen ere leku berbera zegoen eta".

elgoibar@barrena.eus / 688 65 56 58



1.500.000 euroko inbertsioa aurreikusi dute Errezabal egoitzaren obrarako. A.O.

27,5 milioi euroko aurrekontua proposatu du Udal Gobernuak 2027rako

lazkoa baino %17,36 handiagoa da aurrekontu-proposamena, eta, besteak beste, Sigmako etxeak berritzea, Pedro Mugurutzako eskola zaharra eraistea eta Altzolan hobekuntza lanak egitea jasotzen ditu

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Udal Gobernuak 27.495.787,13 euroko aurrekontua aurkeztu du 2027rako; iazko hasierako aurrekontua baino %17,36 handiagoa –4.068.110,93 euro gehiago– eta iazko behin betikoa baino %7,75 handiagoa –1.977.839,51 euro gehiago–. Azaroan zehar udal taldeen arteko bilerak egingo dituztela aurreratu dute, proposamena lantzeko, eta azaroaren 24ko osoko bilkuran bozkatuko dute behin betiko aurrekontua.

Gastuak, arloka

Antolakuntzak %12,41eko igoera izango du, Herritartasunak %24,14koa eta Lurraldeak %14,60koa. Lurraldeko igoeraren zati handi bat Eulogio Estarta (Sigma) auzoko urbanizazio lanei, Errezabal egoitzako aparkalekuaren obrei eta Usetxe Plaza proiektuari lotuta dago. Sailka, hauek dira proposatutako igoerak: Kultura, %58,44; Berdintasuna, %31,61; Euskara, %23,85; Sustapena, %23,92; Gazteria, %18,84; Hirigintza, %14,60; Kirola, %12,53; eta Ongizatea, %4,11. Gastu motaren arabera, bestalde, pertsonal-gastuak %5 inguru igoko dira; gastu arruntak, %3,52; eta inbertsioak, %128.

Azaroaren 24ko osoko bilkuran bozkatuko dute aurrekontu proposamena

Inbertsio garrantzitsuenak

Inbertsioen atalak jasoko du 2027an ere diru kopururik handiena, eta, hain zuzen, hauek dira garrantzitsuenak:

- Errezabal egoitza: 1.500.000.
- Usetxeko obra: 1.112.724,52.
- Sigmaren urbanizazioaren bigarren fasea: 500.000.
- Altzolako saneamendua: 450.000 –2028an jarraipena–.
- Herri-bideen konponketa: 425.000.
- Kirol-ekipamenduak: 410.000 –atletismo pista berria eta eskalada praktikatzeko espazio berria–.
- Landa-auzoetako inbertsioak: 320.000.
- Higiezinen konponketak: 237.800.
- Arriagako sarbidea: 150.000.

Inbertsioak finantzatzeko kapital-transferentziak %211,79 haziko dira: 2026an 1,36 milioi euro ziren eta 2027an 4,81 milioi izango dira. Igoera hori jarduera zehatzetarako dirulaguntzei lotuta dago; besteak beste, Usetxeko obrei eta Eulogio Estarta Etxebizitzen (Sigma) berritzearen bigarren faseari, eta Gipuzkoako Uren 850.000 euroko ekarpenari.

Errezabal egoitzaren inguruko obrek, berriz, "nabarmen" handituko dituzte eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren diru-sarrerak. Azaldu dutenez, baliabide horiek helburu zehatza dute, eta ezin dira ohiko diru-sarreratzat hartu. Diru-sarrera horiek erakundeen arteko lankidetzaren isla direla zehaztu dute. Era berean, udal aurrekontutik kanpo, beste administrazio eta erakunde batzuek Elgoibarren sustatzen dituzten inbertsioek 43 milioi eurotik gorako bolumena dute. Azkenik, 2026an 1,33 milioi euroko mailegua aurreikusi zuten, eta datorren urteko aurrekontuak ez du mailegurik jasotzen.

Beste batzuk

Zerbitzu publikoen alorrean, herritarren egunerokoan eragin zuzena dutenak "sendotzea" du helburu Udal Gobernuak. Horrela, liburutegi zerbitzua larunbatetan irekita egongo da, eta Mintxetako muskulazio-gelaren ordutegia zabaldu egingo dute, erabiltzaileen eskaerei erantzuteko. Horrekin batera, gaztelekuan bidelagun figura sortuko dute. Udalaren modernizazio-prozesuak ere jarraipena izango du 2027an, "eraginkortasuna eta herritarrekiko komunikazioa" hobetzeko. Horretarako, pantaila digitalen hobekuntzan eta udal webgune berriaren garapenean aurrera egiteko asmoa azaldu dute. Horrez gain, Gizarte Zerbitzuetan proposamenak hainbat ildo nagusi jorratzen ditu: alde batetik, etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta Eguneko Zentroa lizitatuko dituzte, bazterketa-arriskuaren aurkako partida handitu egingo dute eta Loratzen programaren aldeko apustua sendotu egingo dute, ongizate emozionalaren prebentzio-lanean sakontzeko. Azkenik, proposamenak handitu egiten ditu ikuskizun eszenikoen, herriko jaien eta auzo-jaien partidak, baita EMUDAFEri emandako dirulaguntza ere. Gobernuak esan duenez, helburua da Elgoibarko kultura eta herri-ekimena indartzea eta herriko bizitza sozialari bide berria ematea.

Udal Gobernuak jakinarazi du aurrekontu-proposamena udalbatzako gainerako taldeekin "modu irekian, arduratsuan eta behar besteko denborarekin" lantzeko borondatea duela. Horretarako, azaroan bilerak egingo dituzte.



Fermin Lazkano izendatu dute Kutxa Fundazioko presidente

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko bizilaguna den Fermin Lazkano Perez bergararra hautatu dute datozen lau urteetan Kutxa Fundazioko presidente izateko. Lazkanok Rafael Amasorrain bergararra ordezkatuko du karguan. EH Bilduk proposatutako hautagaia izan da, EAJren eta PSE-EEren adostasunarekin. Era berean, Donostiako Udaleko ordezkari Miren Azkarate izango da lehen presidenteordea, eta David Garcia, bigarren presidenteordea.

Fermin Lazkanok Kutxa Fundazioan urte askoko ibilbidea egin du, eta 2022az geroztik da patronatuko ordezkari. Fundazioak zehaztu du esperientzia duela analisi ekonomikoan, enpresa-kudeaketan eta gobernu-organoetan. Izan ere, fundazioko makina-erremintako formakuntza teknikoan aritu zen 2008tik 2022ra arte. Arlo politikoan, 2023ko udal hauteskundeetan EH Bilduko zerrendakidea izan zen Elgoibarren.

Etapa berria

Kutxa Fundazioaren gobernu-organo nagusia zuzentzeko ardura hartu duten lagunek interes publikoko ekimenak garatzen ibilbide luzea dutela azpimarratu du Fundazioak, eta lehendakaritza berriarekin beste etapa bati ekingo diotela gaineratu dute; hain zuzen ere, kulturarekin, hezkuntzarekin, zientziarekin, pentsamendu kritikoarekin eta lurraldeko talentua babestearekin duen konpromisoaren jarraipenak markatutako etapari.



Lazkano. EH BILDU

Beldur Barik lehiaketaren tokiko edizioa antolatu du Udalak

Sari banaketa eta topaketa Elgoibarren izango dira aurten

A.A.

Elgoibarko Udalak Beldur Barik lehiaketaren tokiko edizioa antolatu du aurten, estreinakoz, eta Udalak Euskal Herriko lehiaketako diru kopuru berarekin sarituko ditu elgoibartar gazteek edo Elgoibarko ikastetxeetako ikasleek aurkeztutako lanik onenak, adin-kategoria bakoitzean.

Beldur Barik programak euskal gazteen artean indarkeria matxista prebenitzea du helburu, eta aurten XVII. aldia beteko du. Emakundek, Eudelek eta hiru foru aldundiek antolatzen dute, Hezkuntza Sailaren, Gazteria Zuzendaritzaren, EHUren eta EITBren laguntzarekin. Gazteekin hausnarketa eta eztabaida prozesuak sustatu nahi ditu, berdintasunarekiko eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzarekiko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakusteko.

Programaren ardatza ikus-entzunezko lehiaketa da, eta, ondoren, topaketa eta sari banaketa egiten dira. Aurtengo, topaketa Elgoibarren egingo dute. Lehiaketan 10 eta 20 urte bitarteko gazteek har dezakete parte, hiru adin-tartetan: 10-11 urte, 12-15 urte eta 16-20 urte. Kategoria bakoitzean lan indibidualak zein kolektiboak aurkez daitezke, eta sariak 200 eta 650 euro bitartekoak dira. Bideoak abenduaren 1era arte aurkeztu daitezke, *www.beldurbarik.eu*s webgunean.



Lehiaketako kartela. SAREA

Errezabal egoitzari buruzko bilera azaroaren 10ean

Elgoibarko Udalak bilera egingo du Urazandiko bizilagunekin Errezabal egoitzaren berri emateko. Azaroaren 10ean egingo dute, 19:00etan, Jubilatuen Biltokiko erabilera askotariko gelan. Udalak obraren egungo egoera eta hurrengo urratsak zeintzuk izango diren azalduko du bileran, eta, horrez gain, auzotarrek dituzten zalantzak eta ekarpenak jasoko ditu. Azaldu dutenez, bileraren helburua da informazioa zuzenean partekatzea, zalantzak eta ekarpenak jasotzea eta horiek proiektuan eta auzoan izan ditzaketen eraginak kontuan hartzea.

Errezabal proiektua estrategikoa da Udalarentzat: "Elgoibarrentzat eta eskualdearentzat garrantzitsua, eta udalerriko hiri-eraldaketarekin lotutako jarduketa nagusietako bat", adierazi dute. Hortaz, Urazandiko auzotar guztiak gonbidatu dituzte.

Zuberoako ikastolen aldeko otarreak salgai Elgoibarko Izarran

Zuberoako ikastolei laguntzeko kanpainarekin egin du bat aurten ere Elgoibarko Izarra euskara elkarteak, eta, urtero moduan, hango ekoizle txikiek ekoitzitako produktuz osatutako otarreak jarriko ditu herritarren eskura. Hiru saski egongo dira aukeran: Pettarra, 52 euroan –ahate-gibel berrosatua, eztia, ardi gazta kiloa, bixkotx artisanalak eta pastak; Arbaila, 57 euroan –eztia, bixkotx artisanalak, kilo erdiko bi ardi gazta, erreximenta, tisanak eta pastak–; eta Basabürüa, 70 euroan –pastak, eztia, sagar-zukua, gazta, patea, lukainka idorra eta piper eztia ozpinetan–. Eskaerak egiteko azken eguna azaroaren 23a izango da. Interesatuek posta elektronikoz edo telefonoz egin dezakete eskaera: *elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus* edo 943 74 16 26. Kanpainari buruzko informazio gehiago, *ikaskoli.eus* atarian.

San Migel jaietako errifaren zozketak badu irabazlea

Kalamua elkartekoek errifak saldu zituzten Aiastiako jaietan, eta dagoeneko agertu da errifaren irabazlea. Aurten, Azkoitira joan da hainbat produktuz beteriko orgatila, eta, hain zuzen, Ane Agirre izan da sariduna. Aste honetan bertan izan da Aiastian, saria jasotzen. Xabier Loiolaren eskutik jaso zuen saria.



Xabier Loiola, saridunarekin. LAGATAKOA

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
943 743 704
688 769 657
Jarri ezazu zure publizitatea BARRENA astekarian edo www.barrena.eus webgunean

EXPRESS ESKAINTZAK!
UFESA OMNIA 3200 PLANTXA
- 3.200 W Potentzia
- Lurrun-kolpea 260g/min
- Prime-Glide Ceramic zola
- Lurrun jarraitua 50 g/min
- Karearen eta tanten kontrako sistemak

44,90 €
MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

LAGUNAK colchonería textil hogar
Finantzatu zure koltxoia
Lagunak Colchonería Textil Hogarrek Laboral Kutxarekin lankidetzan dihardu, saltokietako erosketa finantzatuz.
- Kuota erosoetan ordaintzea
- Bankuz aldatu gabe
- Modu erraz eta seguruan
- Ia paperik gabe
- LABORAL Kutxaren bezero izan edo ez

Etorri eta informatu zaitez!
San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com

Txiki Eguneko 1.200 argazki herritarren esku jarri ditu Eduardo Arrillagak

Pilon tabernan jarri ditu ikusgai argazkiak, abenduaren 6ra arte

Ainhoa Andonegi

18 urte daramatza Eduardo Arrillaga argazkilariak Txiki Egunez argazkiak ateratzen, liburu bat osatzeko. Lana egituratuta eta maketatuta dauka, eta argitaratzeko babesle bila dabil orain. Alabaina, urte horietan guztietan ateratako 50.000 argazkietatik 90 inguru sartu zaizkio liburuan, eta kanpoan geratu zaizkion irudi guztietatik 1.200 herritarrei oparitzea erabaki du. Horretarako, erakusketa bat antolatu du, *Agindutako 1.000 erretratuak* izenburupean. "Izan ere, jendeak beti galdetzen dit ea noiz ikusiko duen ateratzen diodan argazkia, eta haiekin dudan zorra kitatzeko modu egokiena iruditu zait", adierazi du.



Txiki Eguneko irudi bat. EDUARDO ARRILLAGA

Azaroaren 4an inauguratu zuen erakusketa, eta hilabetez egongo dira ikusgai argazkiak, taberna ordutegian. Hogei poster jarri ditu tabernako hormetan zintzilik, argazkiak ateratzen ibili den urte bakoitzeko bat, eta bi poster berezi gehitu dizkio: orokorra bata eta Txiki Eguneko arima eta motorra den Mauxitxa txarangari eskainitakoa bestea. Arrillagak jakinarazi du Mauxitxari 200 bat argazki oparitzeko asmoa ere baduela. Horiek QR kode baten bidez deskargatu ahal izango dira, doan.

Umeen emozioak ulertzeko lehen saioa asteartean izango da



Donna Apellaniz. LAGATAKOA

Atxutxiamaikak Elgoibarko Udalarekin elkarlanean prestatu duen familia proiektuaren barruan, umeen emozioak lantzeko hiru hitzaldi egingo ditu Donna Apellaniz Nieto terapeutak. Azaroaren 10ean izango da lehenengoa, 17:30ean, Aita Agirre kulturgunean. Emozioak zer diren landuko dute lehen saio horretan, haurren emozio adierazpenetatik abiatuta, eta horren atzean zer dagoen ulertzen saiatuko dira, umearen bidelagun izateko. Hain zuzen ere, bi ordu iraungo du tailerrak.

'Quo vadis, Ertzaintza' liburua aurkeztuko dute astelehenean

Ahoztar Zelaieta (Bilbo, 1972) euskal ikerketa-kazetari eta kriminologoa da, eta Euskal Herriko politika, instituzioetako ustelkeria, klientelismoa eta gizarte-gai ilunak sakonki aztertzeagatik da ezaguna. Duintasuna taldearen eskutik iritsiko da datorren astean Elgoibarrera, eta idatzi duen azken liburua aurkeztuko du: *Quo vadis, Ertzaintza? Anatomía de una deriva ultra* (2026). Ertzaintzaren barruan ultraeskuinaren eta muturreko diskurtsoen hazkundea aztertzen duen lana da. Kultur Etxeko –Altzolatarren dorretxea– hitzaldi gelan izango da aurkezpena, astelehenean, azaroak 9, 18:30ean.



Ahoztar Zelaieta. LAGATAKOA

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Aizu! ostalarien elkarteak astebururako

Kontzertuak eta kale antzerkia izango dira gaurtik hasita

A.A.

Herriko ostalaritza sustatzeko helburuarekin sortu zuten Aizu! elkartea, eta orain dela urte batzuk hasi ziren Aizu! Astea antolatzen. Horren barruan era askotako ekintzak antolatu izan dituzte aurreko urteetan; besteak beste, Aste gastronomiko mikologikoa, DJ asteburuak, gastro-rock ekimenak... Eta aurten ere ez dute hutsik egingo. Gaur hasiko dituzte ekitaldiak, Kuttune taldearen kontzertuarekin. 23:00etan izango da, Maalako parkean. Nerea Quincoces Ochoa perkusionista eta abeslariak sortu zuen taldeak folk doinuak lantzen ditu, eta hamar musikariz osatua dago.



Patxangoi elektrotxaranga. A.A.

Biharko ekintzak

Biharko, bestalde, goizetik goizaldera arteko egitaraua prestatu dute. 13:00etan, *Piratak* kale ikuskizun ibiltaria egingo dute Goloka taldekoek kalean zehar. Kale-antzerkian eta animazioan profesionalki aritzen den taldea da Goloka. 1983. urtean sortu zuten, Bilbon, arte plastikoetan aritzen ziren hainbat lagunek, antzerkia beste modu batean egiteko gogoz, publiko guztientzat. Arratsaldean, musikak hartuko ditu herriko kaleak, 18:00etan, Patxangoi Elgoibarko elektrotxarangaren kalejirarekin. Gauerako, azkenik, bi kontzertu iragarri dituzte: batetik, Marbellako Puya taldeak rock estiloko doinuak joko ditu Maalan, 20:00etan hasita; eta 23:00etan, Willson & Willsonetis taldeak Fito&Fitipaldis talde ezagunaren omenezko kontzertua emango du.

Institutuko patioa herritarrentzat zabalduko dute asteburuetan

A.A.

Arreiturre institutuko patio estalia herritarrentzat irekiko dute asteburuetan. Hala, haur, nerabe zein familiek erabili ahal izateko moduko aisialdigunea izango da zapatuetan eta domeketan, 09:00etatik 20:00etara.

Herritarrek eskatutakoa

Elgoibarko Udalak jakinarazi duenez, Amataumobila elkartearekin elkarlanean sortutako ekimena da, herritarrek eginiko eskaera bati erantzuna emateko. Herrian aisialdirako gune gehiago behar zirela ikusita, Udalak eta Amatatumobila elkarteak elkarrekin landu dute proposamena. Loratzen estrategiaren baitan, prebentziorako beste urrats bat dela azaldu dute. "Aisialdi osasungarrirako eta elkarbizitzarako guneak sortzea tresna garrantzitsua da prebentziorako. Horrenbestez, herrian haurrentzat eta nerabeentzat dauden aire zabaleko jolasguneen zerrendan bat gehiago izango da institutukoa". Aipatu duten zerrenda hori honako hauek osatzen dute, besteak beste: herri eskolako ataria, Basarteko skate parkea, Sallobente Ermuarango berdegunea, frontoiak, Mintxetako futbol zelaiak eta atletismo pista, parkeak eta IMHko tenis pista.



Institutua. LAGATAKOA

Eskaladan aritzeko boulderra eraikiko dute Toletxe kaleko lokal batean

Eskalada Taldea sortu dute Morkaiko mendi taldearen baitan



Boulderra eraikiko duten lokala, diseinua eta amaieran izango duen itxura. MORKAIKO ET

Asier Orbea Ostolaza ELGOIBAR

Boulderrean edo bloke-eskaladan aritzeko espazio berri bat sortzea izango da eratu duten Morkaiko Eskalada Taldearen aurreneko lana. Elgoibarko Udalaren eta Danobatgroupen laguntzari esker egiteko asmoa dute. Eskaladazaleak batu nahi dituzte taldera, eta, hain zuzen ere, bazkide kanpaina jarri dute abian.

Olaizaga kiroldegian dagoen rokodromoa osatuko du Toletxe kaleko 21. zenbakiko nabe batean eraikiko dutenak. Hain justu, Izpi tailerra egon zen lokalean eraikiko dute, petankan aritzeko gunearen parean.

Olaizagako rokodromoak duen boulderrean aritzeko zatia –eskuinaldean– txiki geratu dela uste dute herriko eskalatzaileek, eta Toletxen eraikiko dutena eskaladako modalitate horretan aritzekoa izango da, oso-osoan. Boulderra altuera txikiko hormetan edo haitzetan egiten den eskalada modalitatea da –orokorrean, 2-3 metrotik hasi eta 8-10 metrokoetara, gehienez–. Sokarik eta arnesik gabe praktikatzen da, lurrean babes-koltxoiak ipinita, *crashpad* izenekoak. Azken urteetan hedapen handia izan duen modalitatea da, eta han eta hemen zabaldu dituzte Elgoibarren egitekoak diren antzerako instalazioak, pribatuak zein publikoak.

Akordioa aurrekonturako

Lokala egokitzeko ados jarri dira Eskalada Taldea eta Elgoibarko Udala, eta, horri esker, 100.000 euroko hasierako aurrekontua izango dute hura egokitu eta boulderra sortzeko. Danobatgroup kooperatibak jarriko du aurrekontuaren erdia. Dagoeneko egina dute boulderrak izango duen itxuraren diseinua, eta, aurreratu dutenez, auzolanean egin nahi dituzte azpiegitura berria eraikitzeko lanak.

Bazkide kanpaina

Hainbat bilera egin dituzte gaiaren inguruan, eta egin zuten azkenengoan 60 lagunetik gora elkartu ziren. "Herrian eskaladarako interesa dagoela uste dugu, baina zenbat eta talde handiagoa eta sendoagoa izan, orduan eta baliabide handiagoak izango ditugu; horregatik erabaki dugu talde gisa eratzea", azaldu dute. Hala, Morkaiko mendi taldearen barruan topatu dute babesa. Horregatik jarri dute martxan bazkide kanpaina. Bazkidetzarako xehetasun edo informazio gehiago nahi duen orok hurrengo helbidera idatzi dezake: *morkaikoeskalada@gmail.com*.

Iosu Rodriguez kulturista, munduko txapeldunorde, bi kategoriatan

Salamancan jokatu dute Munduko Kulturismo Natural Txapelketa

A.O. ELGOIBAR

Zilarrezko bi domina eskuratu ditu Iosu Rodriguezek Munduko Kulturismo Natural Txapelketan. Hala, ondu egin ditu iaz Dubain lortu zuen bosgarren postua eta 2022an Pragako Munduko Txapelketan lortu zuen emaitza –brontzezko domina–.

Kulturista elgoibartarra *Fitness model* kategorian da profesionala, eta, maila horretan lehiatzeko asmoa zuen arren, azken orduan *Men's physique* kategorian ere lehiatzea erabaki zuen. "Oholtzara irten eta azken urteetan egin dudan lan guztia erakutsi ahal izan nuen nire gorputzean. Inoiz baino sasoi hobeagoan nengoela esan zidaten ezagutzen nautenek zein aurkariek, azala muskuluei itsatsia nuela, sekula ez bezala. Nire bizitzako fisiko onenarekin iritsi nintzen Munduko Txapelketara, eta aprobetxatu beharra neukan", azaldu du. Zilarrezko domina lepoan zuela, haren helburu nagusia zen kategorian lehiatu zen gero: *Pro fitness model* izenekoan. "Ezin izan nintzen Daniel Noe munduko txapeldunaren aurretik sailkatu, baina Europako txapeldunaren aurretik geratu nintzen, eta balio handia ematen diot horri. Oso-oso pozik nago munduko txapeldunorde izatea lortu dudalako. Sekulako asteburua izan zen niretzat, aparta".



Rodriguez, *Men's physique* kategorian lortutako bigarren postua ospatzen. LAGATAKOA

Juanan Martin, txapeldunorde, mendi lasterketen Euskal Herriko Kopan

Asier Orbea ELGOIBAR

Balmasedan bukatu zuten, domekan, mendi lasterketen Euskal Herriko Kopa, lineako proben modalitatean. Zortzi probak osatu dute aurtengo txapelketa, tartean Mendaroko Kilimon Trail lasterketak, eta azken podiumetako batera igo da Juanan Martin Leiva saltakari elgoibartarra. Titulua lortu nahi zuten mendi-lasterkariek gutxienez bost proba jokatu behar zituzten, eta Morkaiko taldeko ordezkaria Euskal Herriko Kopako sei probatan lehiatu zen, eta erregularrenetakoa izan da Master A kategorian –40-47 urte–. Martinek 501 puntu batu zituen sei probatan –Kolazino, Kilimon Trail, Kanpezu, Lakuntza, Sorginen Lasterketa eta Kolitza Balmatrail–. Emaitzarik onena Kilimon Trailen lortu zuen, haren mailako azkarrena izan baitzen Mendaroko mendietan jokatutako proban. Portugaleteko Julen Aguado (Ganerantz MT) gailendu da Master A kategorian, 529 punturekin.

Zubeldia eta Legorburu, txapeldun

2026ko Euskal Herriko Kopako sailkapen nagusiari dagokionez, Eider Zubeldia amezketarra eta Iraitz Legorburu getariarra izan dira onenak.



Martin, Kolitza Balmatrailen. LAGATAKOA

UTMBko Serra de Tramuntana lasterketa irabazita, Omangoan jarri du begia Maiorak

laz muskulu iskiotibialak apurtu zituen lasterketara itzuliko da bost aste barru

Ainara Argoitia MENDARO

Serra de Tramuntana mendi lasterketa irabazi du asteburuan Maite Maiorak Mallorcan (Herrialde Katalanak). UTMB zirkuituko proba da, 138 kilometro eta 5.350 metroko desnibel positiboko ibilbidea duena, eta 18.01.17ko denboran osatu zuen –gehienez, 30 ordu eta erdiko denbora zuten–. Estellencs herriko izen bereko kalan hasi zuten lasterketa, ostiral gauez, 22:00etan, eta Esporlesen bukatu, Unescok gizadiaren ondare izendatutako Tramuntana mendilerroan barrena ibilita. Celine Finas frantziarra sailkatu zen emakumezkoetan bigarren postuan, 19.28.31ko denbora eginda, eta Andrea Vlasakova txekiarra izan zen hirugarren (20.20.19). Gizonezkoetan hiru frantziarrek osatu zuten podiuma: Lambert Santellik (14.38), Jeremy Lenormandek (15.20) eta Gabriel Airiauk (15.32).



Maite Maiora, Mallorcako lasterketan. JOSE MANUEL MUÑOZ EGEA

"Proba engainagarria"

Halaxe deskribatu du Maiorak Serra de Tramuntana lasterketa. Aitortu du aurrez lasterketako ibilbidean entrenatu gabe abiatu zela ostiralean lasterka, eta bereziki jaitsierak oso teknikoak egin zitzaizkiola: "Sentsazio onekin abiatu nintzen, eta eroso egin nuen ibilbideko lehenengo zatia, korrika egiteko aukera ematen zuelako ibilbideak. Beldurra nuen, ez nekielako nerbio ziatikoak nola erantzungo zidan, hara joan aurretik dezenteko lata eman baitzidan, baina saiatu nintzen hori kontrolatzen. Ibilbidea, berriz, uste baino teknikoagoa egin zitzaidan. Gurdibidean egin genuen zati handi bat, eta harri borobilduak oso labainkor zeuden, eta jaitsierak, nahiko arriskutsu".

Hasieratik lasterketa buruan joan zen, baina iraupen luzeko lasterketetan zaildua denak badaki duena baino garrantzi handiagorik ez ematen horri, 138 kilometroan edozer gerta daiteke eta: "Ez nion horri garrantzirik eman, nahiz eta aurrean joatea beti den lagungarri buruarentzat. Beste emakume korrikari batekin egin genuen ibilbidearen zati handi bat, eta sumatzen nuen ni atzean laga nahian ari zela. Ez zitzaidan, baina, estrategia ona iruditu, hala dabilenak arriskua izaten du-eta behar baino indar gehiago galtzeko erritmo aldaketa horietan, eta nik neureari eutsi nion. Halaxe egin nuen aurrera, eroso, jaitsieretan kontu handiz ibilita. Sufrituta, baina uste baino erosoago irabazi nuen".

Lasterketako zati luze batean bigarren korrikalaria orpoz orpo zuela egin zuen korrika Maiorak, baina bi orduan gelditzera behartu zuten hura antolatzaileek, lasterbide bat hartu eta behar baino hamar kilometro gutxiago zeramatzalako eginak. Hala, bakarrik iritsi zen helmugara. "Garbi daukat zorte txarra izan zuela; ez zuela nahita egin. Nolanahi ere, ni neu oso pozik nago egindakoarekin. Eroso joanda ere, ez da sekula jakiten zer gertatu daitekeen 138 kilometroko lasterketa baten. Oraingoan, behin bakarrik erori naiz, baina helmugarako sei kilometro eskas falta zirenean. Helmuga gurutzatu arte ezin da hemen besorik jaso".

Eslovenian bigarren geratuta eta Mallorcan irabazita, Omango Himan mendi lasterketa dauka orain begiz jota, hura ere UTMB zirkuituko lasterketa. Iaz, irabazi egin zuen lasterketa hori, baina lesio larria izan zuen han, muskulu iskiotibialak apurtu baitzituen. Aurtengoarekin hirugarren aldia izango du Omanen.

Jubilatuen tabernaren ustiapena esleitzeko lizitazioa hasi du Udalak

Martitzenean, hilak 3, zabaldu zuten eskaerak aurkezteko epea, eta abenduaren 2ra arte egongo da aukera

A.A. MENDARO

Jubilatuetako tabernaren kontratazio-espedientea onartu eta hura arautuko duten administrazio-klausulen eta preskripzio teknikoen agiriak aho batez onartu ostean, taberna bera kudeatzeko lizitazio-prozedura hasi zuen martitzenean Mendaroko Udalak. Zehaztu dutenez, esleipena prozedura irekiaren bidez egingo dute, eta kontratuaren hasierako iraupena urtebetekoa izango da, nahiz eta urtez urte luzatu ahal izango duten, gehienez ere lau urterako. Gutxieneko lizitazio-kanona, berriz, urteko 4.500 euroan ezarri dute, eta lizitatzaileek gorantz hobetu ahal izango dute kantitate hori.

Dokumentazio guztia, Udalaren webgunean

Lizitazioari buruzko dokumentazio guztia Mendaroko Udalaren webgunetik sar daitekeen kontratatzaile-profilean dago eskuragarri –bai baldintza administratiboen plegua, bai preskripzio teknikoen plegua–, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman. Udalak zehaztu du azaroaren 3tik abenduaren 2ra aurkeztu ahal izango direla eskaerak, bi egun horiek barne, eta, zalantzarik izanez gero, honako telefono honetara deitzeko eskatu dute; betiere, laneguneta eta 09:00etatik 15:00ak bitartean: 688 68 70 89.

Enetz Ezenarro alkateak zehaztu du lehenbailehen lotu nahi dutela kontu hori, obrak amaitu eta taberna irekitzeko prest dagoen momentuan bertatik hasteko zerbitzua ematen. Eta gaineratu du: "Eperik laburrenean bai jubilatuen lokala eta bai taberna martxan jartzea da gure asmoa".

Kilo eta erdi pasako onddoa batu du Asier Landak Mendaroko lurretan

A.A.

Perretxikozalea da Landa erretegiko sukaldari Asier Landa, eta makina bat ale jasotakoa da, zer esanik ez udazken honetan, baina aitortu du sekula ez duela martitzenean jaso zuen onddoaren *(Boletus edulis)* tamainakorik bildu. 31 zentimetroko diametroko txapela zuen martitzean jaso zuenak, eta 1.550 gramo pisatzen zuen. Jatetxean bertan zuen ikusgai martitzenean.

"Txapela ikusi dudanean, apartetik, enbor zati bat zela ere pentsatu dut. Jaso, eta kontu handiz ekarri dut etxera", azaldu zuen. Halakoetan ohi denez, ez du zehaztu non batu zuen, baina ziurtatu du Mendaroko mugen barruan izan zela.



Asier Landa, onddo handiarekin, erretegian. AINARA ARGOITIA

Aizpen barik, udaletxean izango da jubilatuen bazkaria

Jubilatuentzako txokolate dastaketa eta Arno disko-jartzailearekin dantzaldia iragarri zituen biharko –zapatua, hilak 7– Mendaroko Udalak, baina azken orduko aldaketa bat izan dela jakinarazi zuten atzo, edizio hau ixteko unean. Izan ere, Aizpen egitekoa zutena udaletxean egingo dute, azkenean, 17:00etan hasita.

Azaroaren 11ko grebarako prestatzeko batzarra, gaur

Etxebizitza eskubidea bermatzeko, espekulazioari ez! lelopean greba orokorrera deitu dute azaroaren 11rako (asteazkena), eta gaur, ostirala, hilak 6, grebarako prestatzeko bilera egingo da Mendaron, Euskal Herriko Etxebizitza Sozialistak deituta. Herriko Enparantzan izango da bilera, 18:00etan hasita.

2027ko ordenantza fiskalak %2,3ko igoera orokorrarekin onartu ditu Udalak

Zerbitzu publikoen kostuen igoerari aurre egitea da eguneraketaren helburua

Garazi Mendieta

Udalak hasierako izaeraz onartu du ordenantza fiskalak %2,3 handitzea 2027ra begira. Urriaren 27an egindako osoko bilkuran onartu zituzten datorren urteko ordenantza fiskalak, eta horiek zehaztuko dituzte udal zerbitzuen baldintzak, tarifak eta hobariak. Eguneraketa orokorra izango da, nahiz eta hainbat salbuespen eta hobari mantenduko dituzten.

Proposatutako igoera prezioen igoera orokorra baino txikiagoa da, eta udal gastuen hazkundea, neurri batean, konpentsatzea eta zerbitzu publikoen kalitatea mantentzea du helburu. Udalak azaldu zuenez, aldaketak 70.000 euro inguruko diru-sarrera gehigarria ekarriko dio Udalari; horietatik 53.000 euro inguru Ondasun Higiezinen gaineko Zergari dagozkio. Gastuen aldetik, berriz, datorren urteko kontratu berriek 600.000 eurotik gorako gastu gehigarria eragingo diote Udalari, eta langileen gastuak 390.000 euro inguru handituko dira.

Udal Gobernuak azaldutakoaren arabera, eguneraketa hori beharrezkoa da udal zerbitzuen finantzaketa bermatzeko, azken urteotan prezioek eta zerbitzuak eskaintzeko kostuek izan duten gorakada kontuan hartuta. Haren esanetan, igoera orokorra egitea eta behar gehien duten herritarrentzako hobariak mantentzea da laguntza horiek modu eraginkorrean bermatzeko bidea.



2027ko ordenantza fiskalen proposamena bozkatu zuten osoko bilkuran. G.M.

Ordenantza berriek, halaber, kultura arloko hainbat tarifa izoztuta mantenduko dituzte, eta egoera ekonomiko zaurgarrian dauden pertsonentzako eta familientzako hobariak jasoko dituzte. Udal Gobernuaren arabera, neurri horien bidez, zerbitzu publikoen iraunkortasuna bermatzeaz gain, laguntza gehien behar duten herritarrak babestu nahi dituzte.

Proposamena EAJren eta PSEren aldeko botoekin onartu zen; PPk eta Elkarrekin Ermuak kontra bozkatu zuten, eta EH Bildu abstenitu egin zen.

Udalak egoera zaurgarrian dauden familientzako hobariak mantenduko ditu

Zerga proposamenak

Onarpenaren aurretik, bi talde politikok bestelako proposamenak aurkeztu zituzten. EH Bilduk 23 zuzenketa aurkeztu zituen, fiskalitate progresiboagoa eta herritarren gaitasun ekonomikoa kontuan hartuko dituen zerga-sistema baten alde. Besteak beste, zerga-politika herritarren egoera ekonomikora hobeto egokitzea eskatu zuen. PPk, berriz, 2027rako aurreikusitako igoera orokorra bertan behera uztea proposatu zuen, gizarte-hobariak mantenduta. Bi taldeek aurkeztutako zuzenketak atzera bota zituzten bozketan.

Bestalde, turismo-egonaldien gaineko zerga arautuko duen ordenantza fiskala aho batez onartu zuen udalbatzak.

Bizilagunak, La Forjako mendi-hegalaren egoerarekin kezkatuta

Arratoien presentzia salatu, eta mendi-hegalaren mantentze-lanak bermatzeko eskatu diote Udalari

G.M.

Urriaren 27ko osoko bilkurako herritarren parte-hartzeen tartean, Bizkaia etorbideko lau etxebizitza-bloketako ordezkariek euren etxebizitzen atzealdeko mendi-hegalaren egoeraren inguruko kezka azaldu zuten. Guztira, 120 etxebizitza ingururi eragiten die egoerak, eta, bizilagunen arabera, ia 30 urte daramatzate lursailek abandonatuta, mantentze-lanik egin gabe. Denbora horretan ingurua garbitzeko eta behar bezala zaintzeko lanik ez dela egin salatu zuten.



La Forjako mendi-hegala. G.M.

Arratoien eta intsektuen presentzia, kontrolik gabe hazitako landaredia eta zuhaitzak etxebizitzen gainera erortzeko arriskua aipatu zituzten, besteak beste. Bizilagunek salatu zuten, halaber, arratoiak egun argiz ibiltzen direla parkean eta plazan, eta, egoera horren harira, karraskariak hiltzeko beita-kutxak agertzen hasi direla. Haien esanetan, arazoak ez die etxebizitzen inguruko bizilagunei soilik eragiten, inguruko espazio publikoak ere baldintzatzen baititu.

Lursailen jabetza argitzeko eskaera

Bizilagunen bozeramaile Julia Patok azaldu zuenez, mendi-hegala osatzen duten partzelak ez dira bizilagunen jabetzakoak. Horregatik, lursailen titularra nor den argitzeko eta mantentze-lanen ardura zehazteko eskatu zuten. Bizilagunek ez dute euren gain hartu nahi, euren esanetan, jabetzan ez dituzten lurretan egin beharreko lanen ardura eta kostua. Izan ere, haien ustez, lursailen jabetza argitzea ezinbestekoa da egoerari irtenbidea eman eta beharrezko mantentze-lanak egin daitezen.

Eskaerari erantzunez, Rosa Maria Cid Hirigintza zinegotziak jakinarazi zuen udal teknikariak dokumentazioa aztertzen ari direla lursailen titulartasuna argitzeko. Azaldu zuenez, jabetzari buruzko informazioa biltzea da lehen urratsa, ondoren zer egin daitekeen zehazteko. Informazio hori bildu ondoren bizilagunen ordezkariekin bilera egiteko konpromisoa hartu zuen, egoeraren berri eman eta konponbide posibleak aztertu ahal izateko.

Eguneroko joan-etorriak errazteko, auzo-taxia jarriko dute martxan

G.M.

Udalak auzo-taxi zerbitzua jarriko du martxan, mugitzeko zailtasunak dituzten herritarren eguneroko joan-etorriak errazteko. Zerbitzua izango da Ermuan erroldatuta dauden 80 urtetik gorakoentzat, mendekotasuna edo mugikortasun murriztua dutenentzat eta gaixondo-egoeran daudenentzat; azken horien kasuan, Gizarte Zerbitzuek hala baloratuz gero.

Onuradunek hilean hamar bidaia egin ahal izango dituzte, gehienez, udalerri barruan. Joan-etorri bakoitzak bi euroko kostua izango du erabiltzailearentzat. Zerbitzua egunero emango dute, 08:00etatik 20:00etara. Erabiltzaileek lagunduta bidaiatu ahal izango dute, aparteko kosturik gabe, eta ibilgailu egokituak ere izango dituzte eskura, beharrezkoa denerako.

Telefono bidezko erreserbak

Bidaiak telefonoz erreserbatu beharko dira; ahal dela, egun bat lehenago. Egun berean ere egin ahal izango dira eskaerak; gutxienez, hiru orduko aurrerapenarekin. Udalak aurreikusi du 2027ko lehen hiruhilekoaren amaieran jartzea martxan, beharrezko izapideak eta lizitazio-prozesua amaitutakoan.



San Pelaioko auzokideendako ekainean jarritako taxi zerbitzua. ANDER GOMEZ

San Martin Azokari ongietorria egiteko atzerako kontaketa hasi dute

Euskal Birusa Elkarteko kideak, San Martin Batzordea osatzen dutenak eta, modu batera edo bestera, antolakuntzan laguntzen diharduten herritarrak azken txanpan sartu dira azaroaren 14an ospatuko den Azoka Egunerako dena prest izateko



Talo- eta saiheski-postuetan laguntzera animatu dituzte herritarrak. E.B.

Ander Gomez

Datorren asteko zapatuan ospatuko da San Martin Eguna Ermuan, 400 boluntario ingururen laguntzarekin. Lana, ordea, ez da egun bakarrera mugatzen: Euskal Birusak hilabeteak daramatza antolakuntza-lanetan, eta San Martin Batzordea osatzen duten berrogeita hamar lagunek urriaren 1etik dihardute zeregin horretan buru-belarri.

Aste honetan jarri dute martxan atzerako kontaketa, eta hainbat ekimen egiten ari dira herrian jai-giroa pizten hasteko. Besteak beste, egitarau osoa aurkeztu dute, "erromerian galduta ez ibiltzeko" Txindurri Dantza Taldearen ikastaroa eskaini dute eta taloak egiten ikasteko tailerra antolatu dute.

Boluntario gehiagoren bila

Lagun-talde polita batu zen atzo Malengo Elkartean egindako talo-ikastaroan, baina askoz esku gehiago beharko dituzte datorren zapatuan. Herritarrak talo- eta saiheski-postuetan prestaketa- eta salmenta-lanak egitera animatu dituzte, baita Txikuriko barran egotera ere. Laguntzeko prest daudenek Euskal Birusa Elkartera jo dezakete.

Bestetik, elkartearen egoitzan San Martin Azokako errifak eskuratu ahal izango dituzte. Herritarrek euro baten truke eros ditzakete, eta saltzen lagundu nahi dutenek 50 zenbakiko sorta osoak ere har ditzakete. Datozen egunotan, kuadrillentzat prestatutako txartel-sortak ere banatuko dira, sare sozialen bidez.

Zozketa Azoka Egunean bertan egingo da, eta bi sari banatuko dira: lehen zenbaki sarituak 400 euro jasoko ditu, txerriaren balioa; bigarrenak, berriz, Nekatur-eko 200 euroko bonua, landetxe batean erabiltzeko.

Dendariak eta tabernariak herria janzten hasi dira

Herriko saltokiak ere hasi dira erakusleihoak, mostradoreak eta barrak San Martin Azokaren bueltan apaintzen. Euskal Birusak formatu handiko bere argazki-bildumaren banaketa hasiko du egunotan, dekorazio-lanetan laguntzeko. Pandemia garaian jarri zuten martxan ekimena, Udalaren laguntzarekin, hogei argazkirekin. Ordutik, urtero San Martin Eguneko argazki lehiaketa irabazi duten irudiak gehitu dizkiote bildumari, eta erakusleiho lehiaketan parte hartu ohi duten saltokiei banatzen dizkiete.

Lehiaketan parte hartzeko ez da aurrez izenik eman behar; epaimahaia bera arduratuko da parte-hartzaileen zerrenda osatzeaz. Almu Maeso eta Nahia Albizuri Arte Ederretan lizentziatuek eta Estibalitz Gonzalez Euskal Birusaren ordezkariak osatuko dute epaimahaia. Baserri-giroarekin lotutako tresnak, jantziak eta bestelako elementuak erabiltzea proposatu dute apaingarriak osatzeko. Eguenean ibiliko dira saltokiz saltoki, erakusleihoen konposizioa, azokarekiko lotura, kolorea eta originaltasuna baloratzen. Iaz, Mayte urdaitegiak eta Alboka Musika Eskolak jaso zuten saria. Aurtengo irabazleak *Barrena.eus* atarian ezagutarazi ko dituzte egunean bertan, eta Azoka Egunean jasoko dituzte garaikurrak.

Euskal Birusa Elkarteak eta San Martin Batzordeak gogorarazi dute horrela, "guztion lanarekin", eraikitzen dela San Martin, eta azken urteetan erabilitako leloa ekarri dute gogora: *Ez da magia, herri-lana da*.

Azoka Eguneko egitaraua

11:00 Azokaren irekiera
- Elikagaien eta artisauen guneak.
- Talo- eta saiheski-postuak.
- Ikastetxeen postuak, Goiko parkean.
- Alboka Musika Eskolako trikitilarien eta Bizkaiko Gaiteroen kalejira, herrigunean.
- Artaldearen jaitsiera –14:00etan bueltatuko da–, herrigunean.
- Abereen erakusketa, Martxoaren 8a plazan.
- Idi-parea, Probalekun.

12:00 Ikuskizunak
- Txindurriren dantzak.
- Iruñeko Alde Zaharreko Erraldoien kalejira, San Pelayotik hasita.
- Herri-kirol erakustaldia, Komentukua kalean.
- Umeentzako jolasak, Kulkirekin, San Martin plazan.
- Ardi-moztea, Martxoaren 8a plazan.

13:30 Sari-banaketa nagusia.
- Fruta eta ortuariak, gazta, sagardoa, txakolina, ogia, euskal pastela, eta txilar eta mila loretako eztiak.
- Saltokirik txukunena.
- Erakusleiho lehiaketa.

15:30 Herri-bazkaria, Merkatu plazan.
- Baba-jana.
- *Ermuan kantuan,* Txerokiak taldearekin.

19:00 Txerokiak taldearen kalejira, plazaraino.

19:45 Sari-banaketa.
- Errifaren zozketa.
- Argazki-lehiaketa.

20:00 Larrain dantza herrikoia, plazan.

20:30 Erromeria, Gauargi taldearekin, plazan.

*Oharra: kokalekurik zehaztu ez bada, ekitaldia plazan izango da.







Getxon egin dute *Foru bizia* ikuskizunaren lehen emanaldia. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



Pispilluk ere parte hartuko du. PISPILLU



Ruper Ordorika, zuzenekoan. DONOSTIA KULTURA

Foru Berriaren historia kalera eramango du 'Foru bizia' ikuskizun ibiltariak bihar

Pispillu Abesbatza Taldeak hartuko du parte biharko ikuskizunean

Garazi Mendieta

Bizkaiko Foru Berriaren 500. urteurrena ospatzeko antolatutako *Foru bizia* ikuskizun ibiltaria Ermuan izango da bihar, azaroak 7. Hortzmuga Teatroa konpainiak sortutako antzerki-proposamenak herriko kaleak agertoki bihurtuko ditu, eta 19:30ean hasiko da, Orbe Kardinala plazan. Zubiaurre kalea zeharkatu ostean, emanaldiaren abiapuntu izango den plazan amaituko da ibilbidea. Ordubete eta erdi inguru iraungo du ikuskizunak, eta doakoa izango da.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek elkarlanean antolatu dute ekimena, 1526an onartutako Foru Berriaren garrantzi historikoa herritarrei gerturatzeko helburuarekin. Bost mende geroago, memoria historiko hori kalera ateratzea proposatzen du *Foru bizia* ikuskizunak.

Kalea, agertoki bihurtuta

Iragana eta oraina uztartzen dituen jai-giroko emanaldiak antzerkia, euskal dantzak, abesbatzak, zuzeneko musika eta egitura mugikorrak konbinatzen ditu. Hainbat diziplina artistiko uztartuz, Bizkaiko historia eta nortasuna modu dinamikoan eta gertukoan ezagutzeko aukera eskainiko du ikuskizunak.

Hortzmuga Teatroaren proposamena ohiko antzerki-emanaldi bat baino haratago doa: ikusleek ez dute leku berean geratu beharko ikuskizuna ikusteko, antzezleei kalean lagundu eta ospakizunaren parte aktibo izateko aukera izango baitute. Horrela, herriko espazio publikoak eszenatoki bihurtuko dira, eta historia modu kolektibo eta parte-hartzailean kontatzeko aukera eskainiko dute.

Herriko taldeen parte-hartzea

Biharko saioan herriko kultur talde batek ere hartuko du parte Hortzmuga Teatroarekin batera: Pispillu Abesbatza Taldeak. Herriko abesbatzaren ekarpen horri esker, ikuskizunak tokiko kultur eragileen parte-hartzea ere sustatuko du, eta talde profesionalaren lana herriko elkarteen jardunarekin uztartuko du.

Ermukoa Bizkaiko lau udalerritan egingo den ibilbidearen hirugarren geldialdia izango da. *Foru bizia* egitasmoa urriaren 24an hasi zen, Getxon, eta urriaren 30ean Santurtzin izan zuen bigarren emanaldia. Azken saioa azaroaren 14an egingo dute, Arrigorriagan. Horrela, Bizkaiko hainbat txokotara eramango dute urteurreneko ospakizuna.

Ruper Ordorika Ermua Antzokian izango da gaur, Mugalariekin batera

20:30ean hasita, ia mende erdiko ibilbide musikalari errepasoa egingo dio kantautore oñatiarrak

Ander Gomez

1980an *Hautsi da anphora* lehen diskoa argitaratu zuenetik, 45 urtetik gorako ibilbide musikala osatu du Ruper Ordorikak. Hogei disko baino gehiago kaleratu ditu eta euskal musikaren erreferente bihurtu da mundu mailan. Duela urtebete kaleratu zuen *Lurra ikutu barik* azken diskoa (Elkar, 2025), hamaika kantuz osaturikoa.

2026a lanaren aurkezpen-biran murgilduta eman du, eta, ohi bezala, Mugalariak izan ditu lagun eszenatokian: Felix Buff, bateria jotzailea; Arkaitz Miner, gitarra, mandolina eta biolin jotzailea; Lutxo Neira, baxu jotzailea; eta Nando de la Casa, perkusio eta teklatu jotzailea.

Urriaren 17an Gernikan ematekoa zuen birako azken kontzertua, baina emanaldi gehiago gehitu ditu egutegira: Bilbo eta Iruñea abenduan, Donostia urtarrilean... eta, aurretik, Ermutik pasatuko da. Hala, gaur, barikua, Ermua Antzokiko udazkeneko programazioaren baitan arituko dira Ruper Ordorika & Mugalaris, 20:30ean.

Sarrerak eta zozketaren emaitza

Kontzerturako sarrerak 12 euroan daude salgai. Lerro hauek idazterako, 150 eserlekutik gora zeuden beteta. Gaur bertan eskuratu ahal izango dira azkenak, antzokiko leihatilan, emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago. Online erreserbatzeko aukera ere badago, Kutxabanken webgunearen bidez.

Barrena.eus atariko irakurleen artean sarrera bikoitz bat zozkatu da asteon. Hamabost lagunek hartu dute parte zozketan, eta Oskar Morales Bildosola izan da irabazlea.

Txinako eta Japoniako tradizioak ezagutzeko tailerrak Lobianon

G.M.

Asiako kultura gertutik ezagutzeko aukera izango dute herritarrek azaroan, Ermuko Udaleko Kultura Sailak antolatutako bost tailerreko zikloaren bidez. Astelehenero egingo dituzte saioak, 18:00etatik 20:00etara, Lobiano Kulturgunean, eta gastronomia, artisautza eta tradizioak izango dituzte ardatz. Proposamenen bidez, Txinako eta Japoniako hainbat ohitura eta teknika ezagutzeko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Bost hitzordu, bost proposamen

Azaroaren 2an egin zuten lehen saioa, Txinako *dumpling*-ak prestatzen ikasteko; datorren astelehenean, Txinako tearen kultura ezagutzeko tailerra egingo dute; hilaren 16an, Japoniako haizemaile tradizionalak egiten ikasiko dute; 23an, sushi tailerra egingo dute; eta 30ean, *kokedama* teknika japoniarra landuko dute, loreontzirik gabeko landare-konposizioak sortzeko.

Jarduerak 18 urtetik gorako herritarrentzat dira. Tailer bakoitzak 25 euroko prezioa du, eta 22,50 eurokoa izango da jubilatuentzat, langabeentzat eta Gazte Txartela dutenentzat. Plaza kopurua mugatua da, eta izen-ematea Lobiano Kulturgunean bertan egin behar da.







BOTEPRONTOA

"Nik nire ametsak beteta ditut; nire alabek eurenak betetzen ikustea falta zait orain"

MARIA CRISTINA SICILIA CONDE ZAINTZAILEA



Maria Cristina Sicilia Conde. G. MENDIETA

Garazi Mendieta

Sicilia Conde Ermuan jaio zen, duela 50 urte, ezkonduta dago eta bi alaba ditu. Adineko pertsonak zaintzen egiten du lan. Aita kordobarra eta ama galiziarra izanik, etxean ez du euskaraz aritzeko aukera handirik izan, eta euskaltegian izena eman zuen iaz. Inguruan eta lanean euskaraz hitz egin ahal izatea da haren helburua.

Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Inoiz ez zait ezer falta izan, beti izan naiz atzean geratzea gustatu ez zaion horietakoa eta inoiz ez dit lotsarik eman ikasteak.

Eta gaztaroa/nerabezaroa?

Gogor samarra. Neba hil zitzaidan nik 26 urte nituela, eta horrek asko markatu ninduen. Baina jendez oso ondo inguratuta bizi izan nuen gaztaroa.

Umetan, zer izan nahi zenuen?

Hegazkineko laguntzaile, baina izugarrizko beldurra diot hegan egiteari; beraz, ezinezkoa izango litzateke.

Zer ikasi duzu?

Gizarte- eta osasun-arloko ikasketak eta etxez etxeko zerbitzua. Zainketa aringarrien titulua ere badut.

Zertan egiten duzu lan gaur egun?

Adineko pertsonak zaintzen ditut, etxez etxeko zerbitzua eskainiz. Zahar-egoitza batean ere egin izan dut lan, eta nire helburua ospitalean lan egitea da.

Zer estimatzen duzu gehien lan horretan?

Adineko pertsonekiko tratua, transmititzen dizuten maitasuna... bakarrik sentitzen diren pertsona horiei babesa eman ahal izatea.

Eta gutxien?

Zuk zaintzen dituzun pertsonak eta hainbeste maite ditzakezunak denboraren poderioz hondatu egiten direla ikustea.

Zenbat ordu ditu zure lanegunak?

Zazpi ordu inguru, goizero, astelehenetik ostiralera.

Aisialdian zerekin gozatzen duzu?

Eskulanak ditut gustuko: gurutze-puntuan brodatzea, poltsak egitea. Irakurtzea ere izugarri gustatzen zait.

Oporretan, nora?

Herrira, Salamancara.

Bidaiatzean, dena lotuta ala inprobisatzea nahiago?

Dena lotuta, orokorrean, baina ez naiz askatzea eta inprobisatzea kostatzen zaion horietakoa.

Jateko plater bat?

Babarrunak.

Trago bat?

Radlerra.

Zein musika mota gustatzen zaizu?

Pop musika.

Musika talde bat? / Abeslari bat?

Camela edo Zetak.

Irakurtzea, zinema, irratia edo telebista, zein nahiago?

Irratia edo irakurtzea. Zinema ere asko gustatzen zait, baina, denbora faltagatik, azkenaldian ez naiz asko joan zinema-aretoetara.

Liburu bat?

Ikusezin, Eloy Morenorena.

Pelikula bat?

Los puentes de Madison edo *Pretty woman.*

Bertute bat?

Jendeari laguntzea gustatzen zait, trukean ezer espero gabe.

Zerk eragiten dizu barrea?

Maite dudan jendearekin denbora pasatzeak.

Eta zerk haserretu?

Zintzotasun faltak.

Bete gabeko ametsik?

Nik nireak beteta ditut; orain, nire alabak beren ametsak betetzen ikustea falta zait. Batez ere, gustuko duten horretan eta ikasten ari diren horretan lanean ikustea gustatuko litzaidake, eta lanpostu duin batean.

Zer miresten duzu pertsona batengan?

Konfiantza, batez ere. Eta asko miresten ditut denbora igaro arren berriro topo egitean berdin jarraitzen duten harremanak.

Ezagutu nahiko zenukeen pertsona hori?

Rihanna edo Bon Jovi.

Bizitzak irakatsi dizun ikasgaia…

Familiaren babesaren garrantzia.

Ermuko txoko bat?

Aixolako presa. Deskonektatzeko gehien gustatzen zaidan tokia.

Euskararekin duzun harremana?

Alabekin etxean euskaraz egiten saiatzen naiz, izugarri laguntzen didate eta gaizki egiten ditudanak zuzentzen ere joaten dira, pixkanaka trebetasuna lortzeko.

Nahiago duzu entzun ala hitz egin?

Izugarri gustatzen zait hitz egitea, baina entzutea ezinbestekoa da ondo hitz egin ahal izateko.

Bidaia bat nora, iraganera ala etorkizunera?

Iraganera, zalantzarik gabe.

ASPALDIKO ARGAZKIAK

Aurreko mende hasierakoak



ESTIBALITZ GONZALEZ



XX. mende hasierako janzkerekin familia-erretratua aterata, ezkerreskuma daude Alejandro Aranburu Ormaetxea, *Droget* ezizenez (...) eta Laureano Aranburu Aguado aita, tente. Jesarrita, Emilia Aranburu Ormaetxea, Valentina Larrañaga Arizmendi-arrieta amama, altzoan Hipolita Mallagarai Ormaetxea ilobatxoa duela, eta eskumarengo Alejandro eta Emiliaren ama, Modesta Ormaetxea Larrañaga.
Ermua, 1901.

BERTOKO KANTUAK

'Domurun Santuru'

E.G.

Azaroaren 1ean, Domu Santu Egunez, Ermuan abesten zen *Domurun Santuru* kanta. Maria Bengoetxea Isasi-Isasmendi *Maria Txindurri*-ri jasotakoa da eta gaur egun Gaba Baltzeko ospakizunetarako berreskuratu da.

Kantaren hitzek akordura dakarte abadeek hileta bakoitzeko, gutxi edo asko, senideei zeozer kobratzeko ohitura zuten sasoia.

Domurun Santuru
Santuru,
umia zuluan
sarturu.
Aitxa dolorez,
ama negarrez,
abadia kantetan
errialaren pozez.



Udalak hondakinen tasa igotzea proposatu du, egungo zerbitzuaren kostua aztertu ostean; turismo-tasa, berriz, Bizkaiko araudiak hala aginduta ezarriko du. A. GOMEZ

Zergak izoztuta mantenduko dira 2027an, hondakin-tasa eta turismo-tasa berria salbu

Mallabiko udal-talde bien aldeko botoekin onartu dira ordenantza fiskal berriak

Ander Gomez

Mallabiko udalbatzak behin-behinean onartu ditu 2027rako ordenantza fiskalak. Erabakia aho batez hartu zuten urriko azken osoko bilkuran, EAJ-PNVren aldeko bost botorekin eta EH Bilduren aldeko hiru botorekin. Oro har, zergak izoztuta mantenduko dituzte. Igotzen den bakarra hondakinen tasa da, eta ostatu turistikoen egonaldien gaineko zerga berria ere ezarriko da.

Hondakinen tasaren igoera

Udalak jakinarazi duenez, egungo tasekin bildutako diru-sarrerak ez lirateke nahikoak hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuaren kostua estaltzeko. Egindako kostu-azterketaren arabera, zerbitzuak 417.355,23 euroko kostua izango du 2027an, eta oraingo tasekin 399.600 euro biltzea aurreikusi dute. Hortaz, 17.755,23 euroko aldea egongo litzateke, zerbitzuaren kostu osoaren %4,25. Datu horiek kontuan hartuta, hondakinen tasa eguneratzea proposatu dute, zerbitzuaren kostuari aurre egiteko.

Igoera ez da bera izango erabiltzaile guztientzat. Etxebizitzen, merkataritzako lokalen, elikadura-arloko saltokien eta ostalaritzako establezimenduen tarifek %1eko igoera izango dute; industrien eta lantegien kasuan, berriz, igoera %8koa izango da.

Hondakinen tasak erabiltzaile motaren eta jardueraren arabera banatuko dira. Etxebizitza, lokal edo jarduerarik gabeko lokal bakoitzeko urteko kuota 53,42 eurokoa izango da. Merkataritza-jarduera edota jatetxerik gabeko landetxe zein nekazaritza-turismoetarako, 217,53 eurokoa; elikadura-arloko saltokietarako, 411,52 eurokoa; eta taberna, kafetegi eta antzeko establezimenduetarako, 454,11 eurokoa.

Industrien eta lantegien kasuan, langile kopuruaren arabera aldatuko da tarifa: bost langile edo gutxiagokoentzat, 422,78 euro; 6 eta 10 langile artekoentzat, 737,54 euro; 11 eta 25 artekoentzat, 888,69 euro; 26 eta 50 artekoentzat, 1.014,05 euro; eta 50 langiletik gorakoentzat, 1.029,88 euro.

Turismo-tasa berria

Ordenantzen berritasun nagusia egonaldi turistikoen gaineko zerga da. Bizkaiko Foru Arauak udalerriei egonaldi turistikoen gaineko zerga arautzea ezarri die, eta 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. Udal bakoitzak ostatu motaren araberako tarifak zehaztu behar ditu, araudiak ezarritako mugen barruan. Mallabiak baimendutako gutxieneko zenbatekoak aukeratu ditu.

Kasu horretan, tarifak ostatu motaren arabera aldatuko dira: bost izarreko hoteletan eta turismo-erabilerako etxebizitzetan 4,50 eurokoa izango da pertsonako eta eguneko; lau izarreko hoteletan, 3,50 eurokoa; hiru izarrekoetan eta apartamentu turistikoetan, 1,50 eurokoa; eta izar bateko hoteletan, pentsioetan, kanpinetan, nekazaritza-turismoetan, landetxeetan eta aterpetxeetan, 0,75 eurokoa. Zerga pertsonako eta eguneko edo egun-zatiko kobratuko da, ostatu motaren arabera. Egonaldi jarraitu bakoitzeko, gehienez sei egunengatik ordaindu beharko da; beraz, astebeteko edo gehiagoko egonaldietan ere sei eguneko muga aplikatuko da.

30 egun alegazioak aurkezteko

Ordenantzak behin-behinean onartu dira. Orain, herritarrek eta interesdunek hogeita hamar egun natural dituzte alegazioak aurkezteko. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko onespena behin betiko bihurtuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Etxebizitzek eta dendek %1 gehiago ordainduko dute hondakinen tasan; lantegiek, %8 gehiago

Pilotaren iragana eta oraina herrian, Mallabitarrok Eginaren 15. aldian

A.G.

Berbalagunek antolatutako Mallabitarrok Egina ekimenak hamabosgarren aldia ospatuko du bihar, azaroak 7, *Mallabia euskal pilota ere bada* lelopean.

10:30ean hasiko da, elizpean, eta bertan jokatzen den –eta Urriko Jaietan Uzuriaga eta Martinen garaipenarekin bukatu zen– txapelketaren istorioa ezagutuko dute, Koldo Praderaren eskutik.

11:00 aldera, pilotalekura abiatuko dira, bertan egingo den solasaldia entzutera. Itsaso Pradera Mallabiko pilotaren historiaz mintzatuko da, Estibalitz Gonzalezek antzinako erraketisten istorioak kontatuko ditu, Aitor Elordik errepasoa egingo dio bere ibilbideari eta Jare Landak eta Naroa Martinezek emakume gazteek pilotarekin duten harremanaz hausnartuko dute.

Ondoren, 12:30ean, udazkenera atzeratu zen *Ez esan!* galdera-erantzun lehiaketaren finala egingo da, parkeko aterpean. Rober Rodriguezek eta Estibalitz Gonzalezek erakutsi dute Mallabiari eta mallabitarrei buruz gehien dakitenen artean daudela aurreko aldietan; oraingoan, Maite Unzurrunagaren, Leixuri Solozabalen, Enara Arronategiren eta Maribi Carrilloren artean dago lehia. Irabazleak Berbalagunen opari-sorta jasoko du, eta, 13:30ean, bertaratutako guztientzako mokadutxoa egongo da.

Parte hartu nahi dutenek 663 07 04 92 Whatsapp zenbakira idatzita edo Kultur Etxera bertaratuta eman dezakete izena.

Antzezlana egin zuten Eire Markinak eta Elorri Katarainek Gaba Baltzean

A.G.

Ruben Markina *Maki*-ren iazko *Madarikaostiok!* antzezlanaren arrakasta ikusita, Mallabiko Gaba Baltza taldeak obra berria sortzea proposatu zien Eire Markinari eta Elorri Kataraini. Haiek erronka onartu, eta, Estibalitz Gonzalezek *Drogetenitturri* aldizkarian idatzitako artikulu batetik abiatuta, XIX. mendean Mallabian gertatutako hilketa baten istorioa hartu zuten oinarri. Hala, 1889an, Amezaga jauregiko jabe izandako Jose Maria Marquina alkate izendatu bezperan herrigunean tiroz hil zutenekoa eta hilketaren osteko ikerketa fikzionatu zituzten.

Eguraldia lagun izan da aurten, eta antzezlan ibiltaria egin zuten. Jauregitik abiatu ziren, hamarnaka lagun atzetik zituztela, eta, Elizalde plazatik igaro ondoren, elizpean bukatu zuten. Bi neskameren rola bete zuten, nagusiki, baina beste hainbat pertsonaia ere irudikatu zituzten bidean; tartean: ehiztaria, guardia zibila, abadea, alarguna eta alkatea. Ibilbide osoan, umoretik landutako pertsonaion burutazioekin barrez leherrarazi zituzten herritarrak; eta, bukaeran, txalo-zaparrada luze batekin eskertu zieten lana, isiltzeko eskatu arren nekez geldiarazi zutena.



Katarainek eta Markinak eskerrak eman zizkieten Mallabiko Gaba Baltza taldeko kideei, aukeragatik; eta *Maki*, Gonzalez eta Alazne Mugarzari, laguntzagatik. A.G.



Harmaila atzo, eguena, ibai-ondotik ikusita. U.M.Z.



Aroztegi zaharra, ibai-ondotik. U.M.Z.

Plaza Zaharreko harmaila Gaztañerrerako bukatuko dutela berretsi dute

Harmaila berriaren amaieran egurrezko plataforma bat eraiki dute; bertako oholek tratamendu berezia dute, hezetasunetik babesteko eta labainkorrak ez izateko; bestalde, harmaila aurreko platanondoak moztu egingo dituztela jakinarazi dute

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Aste honetan, Plaza Zaharreko harmailaren obraren baitan, batzokiaren aldameneko miradorea bukatzen eta inguruko paretak egurrez estaltzen ari dira. Ibai ondoko plataforman ipinitako egur berbera ari dira inguruan ipintzen, eta miradorean ere halaxe egingo dute datozen egunotan. Gero, miradorea barandaz babestuko dute.

Harmailari berari dagokionez, ezkerreko eskaileretako baranda jartzea falta da –metalezkoa–, baita bi eserleku ere. Azken horiek harmailen goiko aldean jarriko dituzte: bata, miradorearen ondoan; eta bestea, miradoretik ezkerretara.

Eta harmailaren beheko aldeari dagokionez, berriz, joan den astean bukatu zuten ibai ondoko egurrezko plataforma. Berdea da, eta tratamendu berezia dute oholek, hezetasunari aurre egiteko eta labainkorrak ez izateko. Harmailaren eskumako zein ezkerreko paretak ere egur berberarekin forratu dituzte. Horrez aparte, harmailaren aurreko aldeko platanondoak moztu egingo dituzte datozen egunotan; halaxe esan du obra egiten ari den Lurkide enpresako Jon Mikel Murua obraburuak.

Hark berretsi du, lehenago esan bezala, Gaztañerrerako bukatzeko asmoarekin dihardutela lanean.

"Herria ibaira gerturatu"

Hain zuzen, egiturak bederatzi harmaila ditu plazatik ibairaino, ezkerreko aldean eskailerak eta eskuman miradorea, plazaren kota berean, harmailak jaitsi ezin dituztenentzat. Azpiko aldean sortu den barne-hutsunea, berriz, Udalak erabiliko du, biltegi moduan. Bestalde, galtzada-harri grisez estali dute harmailaren aurreko plazako zorua.

Obra urtarrilaren 12an hasi zuten. Lehenengo, plazako antzinako platanondoetako bat moztu egin zuten; gero, aroztegi zaharra eraitsi egin zuten; eta ondoren hasi ziren harmailak eraikitzeko lanak. Aurrekontuari dagokionez, 355.717,79 euro –gehi BEZa– izan zen esleipeneko kopurua.

Oro har, Udalak azaldu zuenez, Plaza Zaharreko harmailaren proiektuak "herria ibaira gerturatu eta harekin are gehiago konektatuko du; horretaz gain, lotura zuzena du ibaia herri paisaiako elementu garrantzitsu gisa definitzen duen prozesuarekin".

Pareta gordeta dago

Bestalde, obrak adjudikatu zireneko aurreikuspena zen bost hilabetean bukatzea. Baina geldialdia izan zuten obrek.

Ezustean, pareta bat topatu zuten lurrak hondeatzen ari zirela, otsailean. Protokoloari jarraiki, obrak gelditu eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eman zioten haren berri. Martxoan, Diputazioak bidalita, Arkeolan Fundazioko aditu bat izan zen pareta aztertzen. Udalerriaren erdigune osoa bezala, esparru hura ere babestuta dago; beraz, pareta ere babestuta laga beharra zegoela esan zuten, nahiz eta ezin izan zuten argitu zeren edo zertarako pareta zen. Kontuak kontu, Diputazioak, ebazpenez, Udalari obrekin aurrera segitzeko baimena eman zion, pareta ez eraisteko baldintzarekin. Hori betetzeko, bere horretan gorde dute pareta, berriro ere lurpean, eta hantxe geratuko da ezkutuan.

'Barberokua' etxearen lekuan eraiki dute harmaila

Plaza Zaharreko harmaila Kalebarren 24an ari dira eraikitzen, *Barberokoa* izena zuen etxe txikiaren lekuan, Sorapediak jasota duenez. Indalecio Ojangurenen argazkian ikusten denez, 1930erako existitzen zen etxetxoa. Haren azpian Zabala aroztegia zegoen, eta, horregatik, askok Aroztegia edo Aroztegi Zaharra esaten zioten etxeari.



Etxaspia, Deba ondoan. INDALECIO OJANGUREN

Etxebizitza eskubidea bermatzeko greba, Soraluzen ere bai

U.M.Z. SORALUZE

Etxebizitza eskubidea bermatzeko, espekulazioari ez! Lelo horrekin dator eguaztenerako, azaroaren 11rako, greba orokor deialdia. Euskal Herrian euskal sindikatu guztiek eta etxebizitza sindikatuek babestu dute protesta. "Etxebizitzekin espekulatzen duten guztien kontrako greba" izango da, eskaera zehatzak eta "berehala" hartzekoak ere badituena; besteak beste, "etxegabetze guztiak etetea eta alokairuaren prezioen jaitsiera".

Soraluzen zer

Grebaren harira, aste honetan batzar irekia egin dute Soraluzen. Bertan jakinarazi zuten, besteak beste, eskualde mailan Eibarren manifestazioa egingo dela, 12:00etan Untzaga plazatik abiatuta, eta manifestaziora joateko modua izango dela Soraluzetik, autoak baliatuta; garraio publikoko langileen grebarako eskubidea errespetatzea da horren helburua.

Horrez aparte, jakinarazi zuten iluntzean ere izango direla mobilizazioak, baina horiek herrian bertan egingo dituzte; hitzordua egin dute eguazten horretarako, 19:00etan, Plaza Barrixan.

Hauteskunde mahaietarako izendunei, abisuak

Aste honetako martitzenean egin dute azaroaren 29ko Espainiako Gorteetarako hauteskunde mahaietan egotea tokatu zaien 45 herritarren zozketa, eta egunotan ari dira horren berri ematen udaltzainak. Mahai bakoitzerako bederatzi lagun izendatu dituzte: presidentea eta bi bokal, eta haien bina ordezko.

Hauteskunde mahaian egon ezin duten herritarrek jakinarazpena jaso eta zazpi eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko; horiek ondo arrazoituta eta frogagiri eta guzti aurkeztu behar izaten dira. Soraluzeren kasuan, alegazioak Bergarako Hauteskunde Batzordean aurkeztu behar dira.

Urriko Gisote Lehiaketaren ondoren, azaroan 80 urtetik gorakoen omenaldia

Azaroaren 20an egingo dute 80 urtetik gorakoen omenaldi-bazkaria

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Joan den barikuan, Gisote Lehiaketa egin zuten Itxaropena Erretiratuen Elkartean, beste urte batez; jai-giroan egin ere. Zortzi bikote sukaldarik egindako gisatuak izan ziren lehian, eta, epaimahaiaren arabera, Ezozi Perez de Herediak eta Rosa Etxeberriak egindakoa izan zen gozoena, nahiz eta denen arteko lehia estua izan zen. Bazkaritan, berriz, gisatu guztiak gozo askoak zeudela eta, asebeteta geratu ziren Itxaropenan bazkaldu zuten 98 lagunak. Sariak, opari-sortak eta esker-onak partitu ondoren, hiru bingo izan zituzten azkenburuko.



Gisote Lehiaketako partaideak, txapeldunak eta udal ordezkaria. U.M.Z.



Lehiaketaren ondorengo bazkariko hainbat herritar. U.M.Z.

80 urtetik gorakoen omenaldia

Aste honetan, berriz, 80 urtetik gorakoen omenaldi-bazkariaren berri ematen hasi dira dagoeneko. Jakinarazi dutenez, omenaldia azaroaren 20an egingo dute. 13:30ean zabalduko dituzte Itxaropenako ateak eta bazkaria 14:00etan hasiko da.

Izen-emateari dagokionez, berriz, aurten beste era batean egingo dute, lehentasuna emango baitzaie iazko bazkarira joan ez ziren bazkideei. Lehentasun horri eutsiko diote azaroaren 12ra arte. Hala ere, gaineratu dutenez, iaz bazkarian egon zirenek ere azaroaren 5etik aurrera eman ahal izango dute izena. Izen-emateak itxarote-zerrendan geratuko dira eta hilaren 12tik aurrera bertaratutakoen behin betiko zerrendan sartuko dira, libre dauden plazen arabera.

Aurtengo batzar orokorrean landu zuten gai hori. Kontua da 80 urtetik gorako 235 bazkide dituztela Itxaropena Erretiratuen Elkartean, eta bazkarian, berriz, 83 lagunendako lekua dagoela. Hala, aukera berdintasuna bermatu eta denek joateko aukera izan dezaten, erabaki dute izen-ematean lehentasuna ematea aurreko urtean bazkarian egon ez zirenei.

DV-Bankoa Abanca pilota txapelketaren final-laurdenak,gaur

El Diario Vasco-Bankoa Abanca pilota txapelketaren 35. edizioaren baitan, gaur, barikua, final-laurdenetako hiru partida jokatuko dituzte Araneko frontoian. 21:00etan hasita, 25 urtez azpiko emakume pilotariak izango dira kantxaratzen lehenak, eta eskuz banakakoa jokatuko dute bi huartearrek, Mendiburuk eta Ibarrolak.

Gizonen promes mailan, berriz, eskuz binakakoa jokatuko dute. Kasu horretan, Salaberria eta Etxeberria (Irurtzun-Tolosa) Perez eta Moto (Lapke-Lakua Txukun) bikotearen kontra arituko dira.

Azkenik, partida gorena nagusien mailakoa izango da. Hor ere eskuz binakakoa jokatuko dute; kasu horretan, Etxeberriak eta Asier Balerdik (Oiarpe-Oberena) osatutako bikoteak Beitiak eta Erkiaga II.ak (Joko Alai) osatutakoaren kontra jokatuko du.

Soraluzetarrak, Antxintxikan



U.M.Z.

Zapatuan, hogei bat soraluzetarrek parte hartu zuten Soraluzen hasi eta Bergaran bukatu zen Antxintxika lasterketan; horietako batek, Jon Zabalak, *roller* moduan; besteek, korrika. Anartz Mugika eta Garazi Catalan izan ziren soraluzetar azkarrenak. Lasterketako podiuma osatu zuten gainerako lasterkarien artean izan ziren biak ala biak, soraluzetar azkarrenek ere izaten baitute euren sari berezia Bergarako podiumean.

GORA ETA BEHERA

Errepidea gurutzatu behar



Kexu da M.R.F. adineko bizilaguna Baltegietako beiraren edukiontziarengatik. Kontatu duenez, lekuz aldatu eta errepidearen beste aldean ipini dute hura. Ondorioz, errepidea gurutzatu beharra dago.

umadera@barrena.eus / 699 86 87 29












"Irure auzoan 8-9 baserri daude abizenen jatorri direnak"

FRANCIS LARRAÑAGA GURIDI 'IRURE' LIBURUAREN IDAZLEA

2024an aurkeztu zuen San Andres auzoari buruzko liburua, 2025ean Ezoziko eta Txurrukako liburu bana, eta orain, Irurekoa



Francis Larrañaga, *Irure* liburuarekin, bizileku duen Bergaran, astelehenean. U.M.Z.

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Irure izenburuarekin, Soraluzeko laugarren eta azken baserri-auzoari buruzko liburua argitaratu du Francis Larrañaga Guridik (Soraluze, 1949). Liburuaren 200 ale argitaratu dituzte, eta, atzo, eguena, zuten aurkeztekoa, Herri Antzokian. Kordobako Unibertsitatean Ingeniari Tekniko Industrial ikasketak egin zituen, eta Eibarren, Sigman, Mondragon Taldean –orduko MCC– eta Tornilleria Deban lan egin zuen, harik eta gaixotasunak "lanetik" apartatu zuen arte. Orduan hasi zen baserriei eta bizilagunei buruz idazten. Bergarako lau liburu idatzi ditu, eta beste horrenbeste Soraluzekoak. Webgunea ere badu, Bergarako baserriak izenekoa.

***Irure* liburuak 23 baserriren informazioa dakar.**

Bai. Baserriz baserri, ordena alfabetikoan. 23tik hiru ez dira existitzen. Zapatuan egon ginen alkatea eta biok baserriz baserri liburuak partitzen. 09:30ean hasi eta 13:00etan bukatu genuen.

Pozik geratu zara emaitzarekin?

Bai. Emazteak beti esaten dit: "Ea altxorren bat topatzen duzun". Eta aurkitu dut; adibidez, testamentuak. Sasoi hartan edozeinek ez zuen idazten, eskribauak ziren notarioak, eta halako bat topatzen dudan bakoitzean…

Irure da Soraluzeko baserri auzoetan zaharrena?

Akaso; idazkiduna bai. Baina horrek ez du esan nahi antzinakoena zenik. Ez dago dokumenturik, eta ez badago dokumenturik, ezin da besterik esan. Liburuan, adibidez, dena dago dokumentatuta. 1.068 dokumentu erabili ditut; azalduta dago nondik atera dudan bakoitza.

Zer gustatu zaizu gehien?

Auzo hartan 8-9 baserri daude abizenen jatorri direnak.

Adibidez?

Irure bera. Lehen Irure abizena 1518. urte ingurukoa da. Gero, artolazabaldarrak gehitu ziren –Osintxukoak–; haiekin ezkondu ziren, eta horregatik, orain, Artolazabal da Irure Mendikoa. Eibarko Artola jatetxea ezagutzen? Ba, hortik dator. 300-400 bat urtez eusten diote Irure abizenari. Haien arbola genealogikoa osatu dut. Eitzaga ere bada abizen-jatorria eta eurek ere eutsi egiten diote abizenari 8-10 belaunaldiz. Iraola ere bada, eta Iraolabeitia ere bai. Azken horiek 1400. urtea ezkero daude baserriari lotuta. Eta 1955eko erroldan ere badira, Laskurain abizenarekin –Ana Rosa Laskurain–, baina Iraolabeitiatik datoz. Horiek dira oraingo jabeak. Euren baimenarekin ipini dut 2026ko argazkia; Begoña Elizburu, Joseba eta Ines Laskurain… azaltzen dira. Haien arbola genealogikoa ere egin dut.

Liburuan jasotako bitxikeriaren bat?

Salogoen-gaineko baserriari buruzkoa. 1598an izurri beltz bat izan zen; Europako bizilagunen erdia-edo hil egin zen. Hona ere iritsi zen. Hemen, idazkietan jasota dago Salogoen-gaineko aita, ama, bi alaba, amaginarreba eta amama hil egin zirela; semea eta neskamea bakarrik geratu ziren bizirik. Haiek kaiola batean –horrela dio idazkiak; seguru aski, txabola bat izango zen–, etxetik aparte bizi behar izan zuten hiruzpalau hilabetez, izurria ez kutsatzeko. Izurri haren ondoren, Soraluzen, ehunka urtean, San Roke bizkarrean hartu eta jaisteko ohitura egon zen; hura da izurriteen zaindaria, eta izurriren bat edo gaixotasun kutsakorren bat zegoen bakoitzean, San Roke jaisten zuten. Soraluzen izurriteak hondatutako bi baserriren gaineko dokumentuak topatu ditut: Eizagirre eta Salogoen-gainekoa. Kalean ere herritarren erdiak hilko ziren, baina ez dut horri buruzko dokumentaziorik topatu.

> **"Nafarroako kateak egoteak erakusten du bazegoela harremana Nafarroako erregearekin"**

> **"1.068 dokumentu erabili ditut, eta azalduta dago nondik atera dudan bakoitza"**

Arkitekturarekin lotutakoak ere jaso dituzu…

Irureko baserri askotan daude egurrezko egitura interesgarriak, aditu arkitektoek esanda, ez neuk. Eta liburuko argazkien artean Irureko armarriak daude. Irureandikoa eta Yruremendikoa baserriek armarri berbera dute. Irureri buruzko lehen notiziak Nafarroako errege baten lehengusuak bisitatu zuenekoak dira; jaia egin zuten, eta bazkaria, eta zezena jan zuten, eta Irureko armarrian azaltzen dira zezenak eta zakurrak, eta Nafarroako kateak ere bai. Idatzita dago hori guztia, orain dela 1.000 urte. Nafarroako kateak egoteak erakusten du bazegoela harreman bat Irureren eta Nafarroako erregearen artean. Gainera, edozeinek ez zuen armarri bat, eta ez zuen jarri ere egiten, ez zegoelako dirurik eta ez zutelako armarria jartzeko baimenik ematen ere.

Armarria noizkoa da?

Ez dago daturik; akaso, hori izango da nire hurrengo lana, armarriei buruzkoa.

Liburuko argazki zaharrena?

Soraluzeko lehen argazkilaria nire osaba zen, Biribiltxo, Bolunburu. Haren argazki batzuk daude, gehienak 1910 ingurukoak. Argazki politak, kuriosoren bat ere bai. Hernizketan, adibidez, argazki kurioso bat dago. Oso dotore jantzita daude, ez daude baserrian.

***Irure* liburuarekin Soraluzeko lau baserri auzoei buruz idatzi duzu; zergatik?**

Nire sustraiak topatzearren hasi nintzen. Plaza Zaharrean jaiotakoa naiz, 1949an. Gabolats kaleko 1. zenbakian. Etxe eder bat zegoen, harrizkoa. 13 urtez bizi izan nintzen han. Orduko jauntxoek bota egin zuten –betiko moduan–. Gu errentariak ginen, hiruzpalau familia ginen, eta joan egin behar izan genuen. Nik ez nituen nire amama-aitaitak ezagutu, bat bera ere ez. Arantzatxo hori neukan; gainera, aita galdu nuen 16 urte nituela. Nire arbasoen jatorria jakin nahi nuen. Gero, osasun arazo bat izan eta ezintasun iraunkorra eman zidaten 50 urterekin. Tribunaleko medikuak esan zidan ezin nuela lanik egin, baina ni beti lanean ibilitakoa nintzen, eta orduan hasi nintzen honetan –eta zur lanketan ere bai–, bizitzeko plan moduan. Familiako gaiak topatzen hasi nintzen gero, artxiboetan.

Bergarakoetan hasi nintzen, hemen bizi nintzelako, baina elizako artxiboetatik, Gipuzkoako artxibo probintzial historikoetatik, notarioetatik, partikularretatik –Olaso, Monzon…– pasatu nintzen, eta Soraluzekoetatik ere bai. Nire enborretik adar asko irteten ziren. Amametako bat Bergarako Lezarrigaineko baserrikoa zen, eta bestea, Soraluzeko Agarrekoa. Denok itxita geundenean, COVIDagatik, Soraluzeko artxiboan begiratzeko baimena eskatu, eta egunero Iturburura joaten nintzen; hilabeteak pasa nituen zegoen dena errepasatzen. Gero, Bergarako liburua egin nuenean, Soraluzetik protestak izan ziren: "Zu Soraluzeko semea izanda, zelan ez duzu hemengoa egin?". Eta nik ordurako dena batuta neukan, dokumentuak eta argazkiak ere bai, milaka eskuizkribu. Horiek laburtu –dena ezin da atera–, konkretatu eta liburuak atera ditut. San Andreskoan bigarren edizioa atera behar izan genuen.

2027ko ordenantza fiskalak aho batez onartu ditu Debako udalbatzak

Udal tasa eta prezio publikoen %3ko eguneratze orokorra adostu du, KPIren azpitik

Izaro Aulestiarte

Debako udalbatzak 2027rako ordenantza fiskalak urriaren 29an egindako osoko bilkuran onartu zituen, aho batez. Ordenantzek udal tasen eta prezio publikoen %3ko eguneratze orokorra jasotzen dute, 2026ko irailean EAEn %5ean kokatu zen KPIren azpitik, bi ehuneko-puntuko aldearekin. Eta, neurri horren bidez, "kostuen igoerak familien ekonomian izango duen eragina mugatu eta udal zerbitzuen kalitatea bermatu" nahi dituela azpimarratu du Udal Gobernuak. Gainera, onartu duten testuak oposizioko taldeek egindako ekarpen guztiak jasotzen dituela adierazi du, eta udal taldeen artean lortu duten adostasuna nabarmendu.



Urriaren 29an, ostegunez, egindako bilkuran onartu zituzten ordenantzak. DEBAKO UDALA

Onartu duten eguneratze orokorra prezioen bilakaera baino txikiagoa da, eta herritarrek udal zerbitzuen kostuen igoera osorik beren gain ez hartzea du helburu. Zaborren eta hiri hondakinen kasuan, prezioa %2,1 igoko da, zerbitzuaren ardura duen mankomunitateak ezarritako irizpideen arabera. Eta, bestalde, nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako tasak, baita hilerriko zerbitzuei dagozkienak ere, izoztuta mantenduko dituzte.

Udal Gobernuak azaldu du gizarte-babeserako neurriak ere indartzen dituztela 2027rako ordenantzek. Udalak antolatu eta kudeatzen dituen jardueretan indarrean dauden hobariak mantenduko dira, eta hobariak genero-indarkeriaren zein etxeko indarkeriaren biktimei ere zabalduko dizkiete. "Horrela, udal jardueretan parte hartzeko aukera erraztu eta egoera zaurgarrian dauden pertsonei lagundu nahi zaie", erantsi dute.

Etxebizitzaren arloan

Hutsik dauden etxebizitzen ondasun higiezinen gaineko zergaren (OHZ) errekargua %75etik %100era igoko da, etxebizitza horiek alokairu-merkatura bideratzea sustatzeko helburuarekin. Eta, azaldu dutenez, eraikinen birgaitzea bultzatzeko, %75eko hobaria aplikatuko da fatxadak birgaitzeko eta teilatuak konpontzeko lanetan beharrezkoak diren hesi eta aldamioen tasetan: "Betiere, instalazioak hiru hilabete baino gehiago irauten ez badu".

Bestalde, aldaketarik izango da udako udalekuei dagokienez, zaintza-zerbitzuaren prezioak ezarri baitituzte: 25 euro bi asteko udalekuetan, 35 euro hiru asteetan eta 45 euro lau asteko udalekuetan. Neurri horren bidez, zaintza-zerbitzuaren kostua arautu eta familiei eskaintzen zaien zerbitzuaren baldintzak zehaztu nahi izan dituzte.

Turismo-tasa berria

Debako udalbatzak onartu berri dituen ordenantzen beste berritasunetako bat egonaldi turistikoen gaineko zerga da, Gipuzkoako foru arauak ezarritako esparruaren barruan. Deban, gutxieneko zenbatekoa euro batekoa izango da, eta hortik gorako zenbatekoak proportzionalki egokituko dituztela aipatu dute; beren esanetan, neurri horrek turismo-jarduerarekin lotutako udal beharrei erantzuten laguntzea du helburu.

Datorren urterako ekitaldirako ordenantza fiskalak alderdi politiko guztien oniritziarekin eta aho batez onartu izanaren garrantzia azpimarratu du Udal Gobernuak. Adostu dituzten neurrien bitartez, "udal zerbitzuen iraunkortasun ekonomikoa, herritarren ongizatea eta udalerriaren beharrei erantzuteko gaitasuna uztartu" nahi dituztela laburbildu dute.

Euskal Kostaldeko Geoparkeak Unescoren Munduko Geoparke izendapenari eutsi dio

Ebaluatzaileen azterketa gaindituta, 'Txartel berdea' eskuratu du, laugarrenez

I.A.

Geoparkeak Munduko Geoparke izendapenari eutsiko dio, beste lau urtez, Unescoren oniritzia lortu ostean. Nazioarteko erakundeak asteartean eman zuen bere erabakiaren berri, Parisen egiten ari den Munduko Geoparkeen Kontseiluaren XI. bilkuran. Aurrekoan bezalaxe, kalifikaziorik altuenarekin gainditu du azterketa Geoparkeak, eta *Green card* (*Txartel berdea*) delakoa lortu du, ikerketa zientifikoan, kontserbazioan, hezkuntzan eta natura-turismoan egindako lanagatik eta geoparke "sendo eta osasuntsua" izateagatik.



Unescoko ebaluatzaileak eta tokiko ordezkariak, Sakonetan, maiatzean. GEOPARKEA

Euskal Kostaldeko Geoparkeak Munduko Sarean jarraitzeko babesa beste lau urterako berritzea lortzen duen laugarren aldia da, eta oraingoan ere adituek ez dute inolako neurri zuzentzailerik identifikatu. Leire Barriuso Geoparkeko kudeatzaileak adierazi duenez, "berrespen horrek berme bat ematen dio Geoparkeari. Hainbeste urte igaro eta gero, geoparke sendo bihurtu garela jasotzen du Unescoko ebaluatzaileen txostenak; bertako agenteen inplikazioa eta gure estrategia errealista bezain asmo handikoa goraipatzen dituzte".

Geoparkearen bidelagun guztiak zoriondu eta haien "ezinbesteko kolaborazioa" ere eskertu du kudeatzaileak: "Zorionak eta eskerrik asko ibilbide luze honetan Geoparkearen ondoan egon diren guztiei –herritarrak, elkarteak, enpresak, udaletako ordezkariak, alkateak...–, denon artean lortu baitugu ebaluazio hau gainditzea. Guztion lanaren emaitza izan da eta bultzada ematen digu beste hainbat urtean lanean jarraitzeko".

Ildo beretik, Geoparkea osatzen duten hiru udalerrietako udalek ere –Deba, Mutriku eta Zumaia– pozik hartu dute albistea. Alazne Txurruka Debako alkateak, adibidez, hauxe azpimarratu du: "Errekonozimendu horrek gure lurraldea babesteko eta bere garapena sustatzeko lanean jarraitzera animatzen gaitu".

Ebaluazioa, maiatzean

Maiatzaren 10etik 13ra egin zen Unescoko adituen azterketa tokiko Geoparkean. Bertan izan ziren ebaluatzaileen txostenak nabarmentzen duenez, bertokoa "geoparke sendoa da, gobernantza irmoa, kudeaketa-talde ona, geozientifiko bikainak eta finantza-egoera egonkorra dituena, eta tokiko, probintziako, eskualdeko eta nazioarteko inplikazio handia duena".

Pasaportea eta nortasun agiria izapidetzeko aukera hilaren 30ean

Udalak jakinarazi du Polizia Nazionalaren unitate mugikorra Deban izango dela hilaren 30ean. Beraz, herritarrek nortasun agiria eta pasaportea egiteko edo berritzeko aukera izango dute bertan, beste herri batzuetara joan beharrik gabe. Ohi bezala, Foruen plazan izango da bulego ibiltaria, 09:30etik 13:00etara; orotara, 34 txanda eskainiko dituzte, eta zerbitzua baliatzeko ezinbestekoa da hitzordua aurrez eskatzea, udaletxeko Herritarren Arretarako Bulegoan aurrez aurre edo 943 19 28 40 telefonora deituta.

Nortasun agiria eta pasaportea egin eta berritzeko ez ezik, nortasun agiriaren ziurtagiri elektronikoa doan aktibatzeko aukera ere badago; gainontzeko tasak eskudirutan ordaindu behar dira. Izapideak egiteko, ohiko dokumentazio ofiziala aurkeztu behar da –argibideak *dnielectronico.es* atarian ikus daitezke–. Kasu guztietan –lapurretan edo galeran izan ezik–, ezinbestekoa da argazki bat eramatea.

Abian da Altxa Buruaren hitzaldi zikloa, haur eta gazteen ongizate digitala ardatz hartuta

Asteon egin dute lehen saioa, eta hilaren 12an eta 24an izango dira hurrengoak

Izaro Aulestiarte

Asteartean, hilak 3, hasi zen Altxa Burua Deba-Itziar taldeak azarorako ondu duen hitzaldi-sorta, Telmo Lazkano gonbidatuarekin. Hezkuntzaren eta osasun digitalaren esparruan aholkularia, dibulgatzailea eta ikertzaile aplikatua da Lazkano, eta ikasgeletan pantailekin gertatzen ari denaz aritu zen Kultur Elkartean; egoeraren diagnostikoa egin, eta horren gaineko proposamenak mahaigaineratu zituen. Hogei bat lagun joan ziren saiora.



Telmo Lazkano aditua, asteartean, Kultur Elkartean egindako hitzaldian. LAGATAKOA

Leku berean, baina azaroaren 12an, 18:00etan, hezkuntza digitalean aditu Edurne Emazabel izango da agertokian, *Familiak digitalki ahalduntzen; askatasunez hezi aro digitalean* gaia hizpide hartuta. Eta hilaren 24an, berriz, Silvia Cisneros mediku, ikerlari eta osasun digitalean adituaren txanda izango da; *Haur eta nerabeen neurogarapen egokirako gakoak* izenburupean ariko da, 17:30ean.

Doitu programaren osagarri

Altxa Burua taldeak azaldu duenez, hitzaldi zikloa Debako eta Itziarko hiru ikastetxeetan –Mendata, Luzaro eta Itziarko Eskola– ikasturte honetan garatzen ari diren Doitu formazio programarekin lotuta dago; eskoletan lantzen dihardutenaren "osagarri" dira, hain zuzen, solasaldiak.

Ikastetxeentzako eraldaketa digital kontzienterako prestakuntza programa da Doitu. "Altxa Burua Gipuzkoa taldeak duela urtebete aurkeztu zituen Doitu programa eta Reset txostena. Doituk ahalduntze digitala bultzatzea du helburu, eta deialdia egin zuten, ikastetxeei formakuntza egin nahi ote zuten galdezka. Bada, zortea izan dugu; guztira hamar bat zentrotan ari dira formakuntza egiten, eta hemengoak daude tartean", azaldu dute.

Bost ardatz ditu Doituk: ikastetxean ez da mugikorrik onartzen, eta Chromebookak ez dira etxera eramaten; pantaila kontsumoak planifikatuta egon behar du; pedagogian analogikoa lehenesten da –paperean irakurri eta idatzi–, eta teknologia balio erantsia ematen duenean baino ez da erabiltzen; ordenagailuaren erabilera indibiduala konpetentzia digitalerako eta aniztasunari erantzuteko gordetzen da; eta ikastetxeak software librea erabiltzen du.

Ikasturte honetan, Doitu formakuntza programa lantzen dihardute Debako eta Itziarko ikastetxeetan

Urrats horiek egiteko, aditu talde batek duela hiru urte egindako Reset txostena dute oinarri; txostenean parte hartu zuten adituetako batzuek laguntzen diete, bada, ikastetxeei, ikasturtean hiru prestakuntza saio eta aholkularitza zerbitzua eskainiz. "Helburua da ikasleen garapen neurokognitiboa errespetatuko duen eta ebidentzian oinarritutako digitalizazio osasuntsu eta libre batean oinarritzen den eredu pedagogiko baterako trantsizio-esparru bat eskaintzea", laburbildu dute.

Sakelakoa erabiltzen ikasteko tailerra egingo du Arbilek, ikasleen laguntzaz

Azaroaren 10ean, 17an eta 24an izango dira saioak, 10:30etik 11:15era bitartean, Arbil elkartean; jada zabalik da izen-ematea

I.A.

Iaz bezalaxe, eskuko telefonoak erabiltzen ikasteko tailerra iragarri du Arbil Elkarte Sozialak azarorako, eta, bide batez, herritarrei parte hartzeko dei egin die. Berezia izango da, gainera, ekimena. Izan ere, belaunaldien arteko elkarlana sustatuz, Mendatako ikasleekin egingo dute, bigarrenez, ikastaroa. Whatsappen erabilerari buruzko zalantzak argitzen saiatuko dira ikasleak, eta, besteak beste, sakelakoarekin argazkiak ateratzen eta partekatzen ere erakutsiko diete partaideei.

Azaroaren 10ean, 17an eta 24an bilduko dira partaideak, 10:30etik 11:15era bitartean, Arbil elkartean. Tailerrean parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aurrez, elkartean bertan, astelehenetan nahiz asteazkenetan, 11:00etatik 12:30era.

Ez da Arbilek hilabete honetarako antolatu duen ekintza bakarra. Guillermo Dorronsoro Deusto Business School-eko dekano ohiaren hitzaldia iragarria zuten, adibidez, atzoko; EAEko Kontzertu Ekonomikoari eta Nafarroako Hitzarmenari buruz hitz egitera gonbidatu zuten.

Aurretiazko borondateak

Bestalde, aurretiazko borondateen gaineko informazio-hitzaldia ere egingo dute, Osakidetzaren eskutik. Bi saioko tailerra izango da; azaroaren 13an egingo dute lehenengoa, eta 27an bigarrena, 11:00etatik 13:00etara. Hogei lagunendako lekua egongo da eta zabalik dute izen-ematea –astelehenetan nahiz asteazkenetan, 11:00etatik 12:30era, elkartean–. Dokumentua izapidetu nahi dutenek bi saioetan parte hartu beharko dute.

Agortuta daude Jon Plazaolaren 'AA Aita' ikuskizunerako sarrerak

Jon Plazaolak *AA Aita* umorezko bakarrizketa taularatuko du gaur, azaroak 6, Kultur Elkartean. Hasieran, emanaldi bakarra iragarri zuten, baina, ikuskizunak izan zezakeen harrera beroa aurreikusita, saio bikoitza antolatu dute, azkenean; 18:30ean izango da lehenengoa, eta 20:30ean bigarrena. Sarrera guzti-guztiak agortu dira.



Jon Plazaola aktorea. LAGATAKOA

















Hilabete osoko egitarauarekin dator Debako Gazte Asanbladaren 26. urteurrena

Gaur hasi eta hilaren 27ra arte iraungo dute urteurreneko ekitaldiek

Nerea Bedialauneta Alkorta

Azkar esaten bada ere, 26 urte igaro dira Debako Gazte Asanbladak bere bideari ekin zionetik. *Gorrotoz suntsitu, ilusioz eraiki!* lelopean, hilaren 21ean egingo dute ospakizun nagusia, baina hilabete osoko egitarau zabala prestatu dute bertako kideek. Hain zuzen ere, gaur bertan, azaroak 6, abiatuko dituzte ekimenak, eta hurrengo hiru asteburuetan ere izango dira hitzorduak, hilaren 27ra arte.



Gazte Asanbladako kideak, egitarauaren kartelak eskuetan. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Zortzi kidek osatzen dute egun Gazte Asanbladako lantaldea, eta, egindako bideari erreparatuta, harro daude: "Nahiz eta batzuetan indar gehiago eduki edo beste batzuetan gutxiago, beti bertan mantendu da, eta hori eskertzekoa da". Pozgarria iruditzen zaie, halaber, "gaur egun dagoen egoera ikusita" Debako gaztetxeak oraindik ere ateak zabalik izatea eta bizirik irautea: "Azken urteotan hutsarazi dituzten gaztetxeen zerrenda luzea da; dena den, gero eta gaztetxe gehiago sortzen ari dira, eta horretaz guztiaz oso harro gaude".

Haien esanetan, ibilbidea "luzea eta esanguratsua" izan da. Horregatik, urte hauetan guztietan proiektuari eutsi diotenei eskerrak eman nahi izan dizkiete, bai iraganean parte hartu dutenei, bai gaur egun bertan dihardutenei ere. "Ibilbide hori posible izan da gaztetxeak defendatzen ditugunon borrokagatik", zehaztu dute.

Horregatik guztiagatik, herriko gaztetxetik igaro diren guztiekin eta oraindik ere haren parte direnekin partekatu nahi dute ospakizuna, baita herritar guztiekin ere. Izan ere, egitaraua ez diete gazteei soilik zuzendu nahi izan, herriko adin eta kolektibo guztiei baizik.

Bertso afariarekin

Ospakizunei ekiteko, bertso afaria izango da gaur. 21:30ean hasiko da saioa, gaztetxean, eta Iraide Onaindia, Elixabet Etxandi eta Alexander Idoeta bertsolariek girotuko dute afalostea. Bertaratu nahi dutenek aurrez erosi beharko dituzte sarrerak; 10 euroan jarri dituzte salgai, Koska tabernan.

Antolatzaileek, bestalde, argi utzi nahi izan dute jarduera eskaintza ez dela festara eta dibertsiora soilik mugatuko. "Dena ez da festa izango", ohartarazi dute, eta, aisialdiaz gain, gizarte auziak lantzeko eta horiei buruz hausnartzeko tartea ere hartuko dute. Horrela, hilaren 13an, eztabaida-gune bihurtuko da Kultur Elkartea: 18:00etan hasita, *Sexu industria: prostituzioa eta sexualizazioaren aurpegi berriak* izeneko solasaldia izango da.

Asanbladako kideen arabera, gai horrek lotura zuzena du "gaur egun daukagun gizarte kapitalistaren oinarriekin eta baita gizarte matxistarekin ere". Horregatik, halako gaiak urteurreneko programazioan txertatzea erabaki dute. "Guri garrantzitsuak iruditzen zaizkigun gaiak azaleratzea garrantzitsua iruditzen zaigu, batez ere, bizi izaten ari garen gizarte honetan", azaldu dute.

Ekitaldi nagusia

Hilaren 21ean egingo dute ospakizun nagusia, egun osoko egitarauarekin. 13:00etan karropoteoa izango da eta 15:30ean herri bazkaria egingo dute gaztetxean. Otordurako txartelak 7 euroan daude salgai, Koska tabernan.

Antolatzaileek herritarren parte hartzea sustatu nahi dute bereziki hitzordu horretan. "Ekitaldi nagusia herri bazkaria izango da, eta bertara ahalik eta jende gehien joatea gustatuko litzaiguke", adierazi dute.

Bazkalostea girotzeko, gainera, bingo musikatua antolatu dute, eta 19:00etan elektrotxaranga aterako da kalera. Gau partean, musika izango da nagusi gaztetxean: 22:00etan Zerotan taldearen erromeria izango da, gauerdian Txamakos taldea igoko da agertokira eta, amaitzeko, 02:00etan DJ Erratzak arduratuko da musika jartzeaz. Gaineratu dutenez, tonbola ere izango da gau osoan.

Ospakizunen hilabetea agurtzeko, hilaren 27rako haurrei eta familiei zuzendutako eskaintza prestatu dute. 17:00etan hasita, txotxongilo tailerra, ipuin kontaketa eta txokolate-jana egingo dituzte gaztetxean.

Kamisetak eta izerditakoak

Bestalde, urteurrenerako propio diseinatutako kamisetak eta izerditakoak aterako dituztela ere aurreratu dute Gazte Asanbladako kideek. Laster emango dute horren berri sare sozialen bidez: "Adi egon gure sare sozialei! Laster jarriko ditugu-eta salgai". Horrez gain, oraindik aurreratu ezin duten beste sorpresaren bat edo beste ere prest dutela iragarri dute.

Gaztetxeko kide ohiekin, egungoekin eta herritar guztiekin ospatu nahi dute urteurrena

Iruleak-eko bi talde, Gipuzkoako Binakako Gomazko Paleta Txapelketaren finalerdietan

Lehian aritu diren bi bikoteek beren multzoetako lider amaitu dute sailkapen fasea

N.B.A.

Gipuzkoako Kluben Arteko Emakumezkoen Binakako Gomazko Pala Txapelketa azken txanpan sartu da, eta aurten bigarren mailan lehian aritu diren Iruleak Emakume Pilotariak kirol klubeko bi bikoteek finalerdietarako txartela eskuratu dute. Ez hori bakarrik: jokatutako partida guztiak irabazita, biek ala biek lider amaitu dute sailkapen fasea beren multzoetan.

Asteburu honetan jokatuko dira lehen finalaurrekoak, eta, lehen fasean eskuratutako lidergoari esker, etxean bertan, Aldats pilotalekuan, ekingo diote hurrengo faseari. "Guretzat oso garrantzitsua zen talde bakoitza bere multzoan lehen postuan sailkatzea, finalaurrekoetan elkarren aurka ez jokatzeko. Izan ere, lehia hori bizi behar badugu, finalean izan dadila, eta onenak irabaz dezala!", adierazi dute jokalariek.

Gaur, 18:30ean, izango da lehen neurketa; Amaia Aizpuru aurrelari azkoitiarrak eta Maialen Rosa atzelari debarrak osatutako Iruleak 1 bikoteak Txost taldekoaren aurka neurtuko ditu indarrak. Bihar, berriz, Elaia Oiartzabal aurrelari debarrak eta Maite Mugartegi atzelari mutrikuarrak osatutako Iruleak 2 bikotearen txanda izango da; Hernani 1 izango dute aurrez aurre, 10:30ean hasita.

"Opari bat"

Txapelketan orain arte egindako ibilbidearekin oso pozik daude Iruleak klubeko kideak. "Partida guztiak irabaztea opari bat izan da. Oso pozik gaude, eta entrenatzen eta bolada on honekin jarraitzen saiatuko gara; ahal bada, txapelketa amaitu arte", erantsi dute.





Ezkerrean, Iruleak 1 bikotea; eskuinean, Iruleak 2. IRULEAK

Azken txanpari begira, helburu argia dutela nabarmendu dute: "Txapela etxean geratzea". Ez hori bakarrik; ahal izanez gero, bi bikoteek finalean elkarren aurka aritu nahiko lukete, "final borrokatu, parekatu eta maila onekoa" jokatzeko.

Horretarako, zaleen babesa ezinbestekoa dela gogorarazi dute. "Zale guztiak animatu nahi ditugu pilotalekura joatera eta gure taldeak babestera. Izan ere, zuen babesa oso garrantzitsua izango da guretzat", zehaztu dute.

Hutsik egin gabe, aurten ere milaka lagun bildu dira ganadua bueltan izan duen ferian

Gustura eta pozik daude Itziarko Peria Batzordeko eta Itziarko Auzo Udaleko kideak, hilaren 1ean egindako feriaren ondorenean. Eguraldia lagun, jendetza batu zen auzolanaren fruitu den ospakizunera



Makineriaren erakustaldia.



Bisitari ugari izan ziren industrialdeko feria-gunean.



Beste urte batez, harrera beroa izan zuen Itziarko Eskolaren aldeko tonbolak.

Izaro Aulestiarte ITZIAR

Esana zuten joan den iganderako jendetza espero zutela industrialdean, eta, beste urte batez, aurreikuspen guztiak bete egin dira. Eguraldia lagun, milaka herritar joan ziren hogeita hamaikagarren aldia izan duen Itziarko Periara, eta "oso balorazio positiboa" egin dute antolatzaileek.

Oro har, ohiko osagaiak izan zituen Itziarko Peria Batzordeak eta Itziarko Auzo Udalak elkarlanean ondutako egitarauak. Azoka goizean zabaldu zuten, eta bertan jarritako 175 postuetan askotariko produktuak erosteko aukera izan zuten bisitariek. Ez ziren falta izan, aldi berean, Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako talogileak, ezta bestelako pintxo eskaintzak ere.

"Iaz ez bezala, gainera, animaliak izan ditugu feria-gunean, eta jendeak asko eskertu du hori, eskaintza izugarria izan delako", aipatu dute sustatzaileek. Makineriaren presentzia "ikusgarria" ere nabarmendu dute, bide batez: "Benetan interesgarria izan zen, adibidez, sasi-garbitzeko robot-makinarekin egindako erakustaldia". Eta, bestalde, Itziarko Eskolaren aldeko tonbolari egindako harrera beroa ere eskertu dute Lizarbe Guraso Elkarteko kideek.

Goizeko txapelketen sariak

Gipuzkoako Ahuntz Azpigorrien VII. Txapelketan, Arrasateko Aitor Murgoitiok lortu zuen aker onenaren saria, Elgoibarko Eider Mugerzak ahuntz onenarena eta Aretxabaletako Jose Ramon Alberdik, aldiz, sorta onenarena. Euskal Herriko Sasi Ardien VII. Txapelketan, Ismael Zubia nagusitu zen sorta eta aharirik onenarekin, eta Angel Mari Sarratea, arkazte sortarik onenarekin.



Hainbat ganadu-arraza ikusteko aukera izan zen azokan.



Behi bat, kamerari so.



Industrialdea, jendez gainezka.



Talogileak, lanean feria-gunean.



Baserriko produktuen eskaintza zabala izan zen. ARGAZKIAK: PERIA BATZORDEA ETA '@ELDRONDEFON'

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Etxeko langile moduan aritzeko prest, bai eta gauak ospitalean pasatzeko ere. 632 29 26 62

Elgoibar. Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Gauez, ospitaleetan, oporretan edo orduka lan egiteko prest. 631 42 56 86

Elgoibar. Pertsonak zaintzen edo etxeak, lokalak, tabernak... garbitzen egingo nuke lan. Titulu soziosanitarioa daukat. 602 89 35 69

Elgoibar. Garbitzaile lanak egingo nituzke etxeetan, lokaletan, tailerretan edo behar den lekuan. 642 71 26 10

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. Goizez zein arratsaldez lan egiteko prest. Euskalduna naiz eta titulu soziosanitarioa daukat. 660 51 17 81 / 943 74 23 30

BESTELAKOAK

Elgoibar. 11 eta 15 urte arteko nesken arropa salgai, egoera eta oso prezio onean. 39. zenbakidun oinetakoak Adidas, Morrison, Jordan... ere baditut. Arratsaldeetan deitu. Mila esker. 656 77 42 15 (Amaia)

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06 Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!

Galle-Tiak FABRIK



SORALUZE
Alaia
Zorionak, Alaia! Oso ondo pasatu genuen zure egunean! Patxo handi bat, familia guztiaren partez!



ELGOIBAR
Maialen
Zorionak, Maialen! Primeran pasatu zure eguna! Patxo handi bat, familiakoen partez!



SORALUZE
Sara
Zorionak, Sara! Jarraitu dakizun moduan ingurua alaitzen; izugarri maite zaitugu! Besarkada bat, etxeko danen partez, eta, bereziki, Julenen partez!



ELGOIBAR
Luma
Zorionak, Luma! Jarraitu orain bezain bixi urte askoan! Familiakoen partez.



ELGOIBAR
Lur
Zorionak, txapeldun, 3. urtebetetze egunean, eta besarkada handi-handi bat etxekoen partez. Maite zaitugu!



SORALUZE
Gorka
Zorionak eta urte askotarako! Etxekoen eta lagunen partetik.

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz *zorionagurrak@barrena.eus*. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
- Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik

Galle-Tiak FABRIK

Zorion agurrek saria dute Barrena-n!

Argitaratzen diren zorion agurren artean
Galle-Tiak Fabrik-eko produktu pertsonalizatuak zozkatuko dira astero!

Aste honetako irabazlea: LUMA ETXANIZ BEREZIARTUA

Joan den asteko irabazlea!



ZOZKETA

Parte hartu:
barrena.eus/zozketak

Barrena
BATZEN GAITUENA

Blues Hotsak jaialdiko kontzertuetarako
2 sarrera bikoitz

Soraluzen
Azaroaren
6tik 22ra

Lagunak Sessions
13 Ostirala

Petti & Ana Galarraga
19 Osteguna

DeRobert & The Half-Truths
21 Larunbata

Barrence Whitfield & MFC Chicken
22 Igandea



Itxoitera eseri,
eta denborarik ez
egunkaria zabaltze...

HEMEN DA
TOPO
BERRIA

TOPO berria, inoiz baino arinago.
Esaldia bukatzeko astirik ere ez!
Hiru geltoki berri eta tren bat 7,5 minuturo
Añorga eta Pasaia artean

Berrestreinatu! Azaroaren 21etik aurrera

+info
topo.eus

euskotren

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - 605 706 086 (24 orduz) - *eskelak@barrena.eus*

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / *barrena@barrena.eus*

OSTIRALA 6

- **MALLABIA Mallabitarrok Eginaren XV. edizioa** *Mallabia euskal pilota ere bada* izenburupean egingo da, eta bukaeran, *Ez esan* lehiaketaren finala izango du. Irteera, Elizpetik, 10:30ean.
- **ERMUA Tailerra: 'Dantza flamenkoaren bidezko ahalduntzea'** Tailer horretan, arte horren erritmoa, mugimendua eta oinarrizko nozioak ikasiko dira giro hurbil, dinamiko eta dibertigarrian. Ez da aurretiko esperientziarik behar. Egunak: azaroak 6, 13, 20 eta 27. Irakaslea: Askoa Etxebarrieta Lasheras. Prezioa: 5 euro. Hizkuntza: elebiduna. Emakumeen Topalekuan, 17:30ean.
- **MENDARO Azaroaren 11ko greba orokorra antolatzeko batzarra** Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak deituta. Herriko Enparantzan, 18:00etan.
- **MENDARO Azaroa Gaztelekuan** *Nor naiz? 20 galdera* egitasmoa. Gaztelekuan, 18:00etan.
- **DEBA Gipuzkoako Binakako Pala Txapelketa gomazko pilotarekin** Finalerdia: Iruleak 1-Txost. Aldats pilotalekuan, 18:30ean.
- **ITZIAR Deba-Itziarko Ernairen Elkargunea** Burugorrin, 19:00etan.
- **ERMUA 'Antibullying' tailerren aurkezpena** 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat bideratuta dauden tailerren aurkezpena egingo da, eskola jazarpena eta haurren norbanako defentsa lantzeko, ingurune seguruagoa sortzeko helburuarekin. Lobiano Kulturgunean, 19:00etan.
- **SORALUZE Hikafari-meriendak** Pil-pilean euskaltzaleen elkarteak antolatuta. Allegro elkartean, 19:00etan.
- **SORALUZE Antzerkia: 'Kandida'** Tartean antzerki taldearen eskutik, Antzerki Garaia zikloaren baitan. Herri Antzokian, 20:00etan.
- **ERMUA Musika: Ruper Ordorika & Mugalaris** Sarrera: 12 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **SORALUZE Bancoa DV Pilota Txapelketa** Kiroldegiko frontoian, 21:00etan.
- **DEBA Bertso afaria** Gazte Asanbladaren 26. urteurrenaren harira, gaztetxean, 21:30ean.



ELGOIBAR Bilboko Mendi Film Festivaleko filmak

OSTIRALA 6: Bilboko Mendi Film jaialdiko azken edizioko pelikula onenen emanaldiarekin hasiko dute Morkaikok antolatutako 2026ko Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloa (2026ko UMEZ). Herriko Antzokian, 21:00etan.



ERMUA Antzerki ikuskizun ibiltaria

LARUNBATA 7: Bizkaiko Foru Berriaren 500. urteurrena ospatzeko ikuskizuna. 19:30ean hasiko da, Orbe Kardinala plazan; ondoren, Zubiarre kalera joango da; eta Orbe Kardinala plazan amaituko da.



DEBA Jon Plazaolaren 'AA Aita'

OSTIRALA 6: Aitatasunaren inguruko umorezko bakarrizketa. Aita izateak eman diona partekatzen du publikoarekin. Emanaldi bikoitza: lehena 18:30ean eta bigarrena 20:30ean. Kultur Elkartean.



MALLABIA Mendibil eta Mendigaine

IGANDEA 8: Mallabiko Mendizaleak antolatuta. 3 kilometroko ibilbidea, eta 650 metroko desnibel positiboa. Denbora: hiru ordu eta erdi. Zailtasuna: ertaina. Irteera, Trabakuan, 09:00etan.

Bertsolariak: Iraide Onaindia, Elixabet Etxandi eta Alexander Idoeta. Sarrerak, 10 euroan salgai, Koska tabernan.

- **MENDARO 'Bitxiak sortzen'** Ludotekan, 17:00etan.
- **ELGOIBAR Kontzertua: Kuttune taldea** Aizu! Ostalarien Elkarteak antolatuta. Maalan, 23:00etan.
- **SORALUZE Haurreskolan izena emateko epea zabalik** 2025 eta 2026. urteetan jaiotako haurren guraso edo legezko tutoreek eska dezakete plaza Haurreskolan, azaroaren 10era bitarte. Izena emateko: *ikasgunea.euskadi.eus* edo Haurreskolan, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Informazio gehiago: 943 75 13 32 edo *soraluze.soraluze@haurreskolak.*
- **ERMUA 'Japonia: artea mugimenduan' tailerrean izena emateko epea zabalik** Liburutegiak antolatuta. 2017 eta 2018. urteen artean jaiotako adingabeentzat. Izen-ematea, azaroaren 12ra arte, helbide honetan: *forms.cloud.microsoft/e/H4DiGqukGG.*
- **ERMUA 'Negulekuak' ekimenean izena emateko epea zabalik** Ermuko Udalak antolatuta. Lehen Hezkuntzako lehen mailatik seigarren mailara bitarteko umeentzat: jolasak, txangoa, bisita, tailerrak... Baldintzak: Ermuan erroldatuta egotea edo ermuar baten zaintzapean egotea. Izen-ematea, azaroaren 12ra arte. Egoitza elektronikoaren bidez edo *Abiapuntu* bulegoan aurrez aurre egin ahal izango da. Tasa arrunta, 56,10 euro, eta familia ugariko kide edo bi anaia-arreba inskribatuz gero, bakoitzak 44,90 euro. Ordainketa ES54 2095 4408 5091 1099 0751 kontu-korrontean egin behar da, eta eskabidea eta ordainagiria aurkeztu beharko dira.

LARUNBATA 7

- **DEBA Merkatu txikia** Plaza Zaharrean, 09:00etan.
- **SORALUZE Ahalduntze eskola: 'Twerk ikastaroa'** Soraluzeko Emakumeon* Ahalduntze Eskolako udazken eta neguko egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Tolarekua aretoan, 10:00etan.
- **SORALUZE Lan-jardunaldia: 'Ibai-paisaiaren Plan Integrala'** Deba ibaiko *Ibai-paisaiaren Plan Integrala.* Azken faseko ekintza antolatu dute. Herri Antzokian, 10:00etan.
- **DEBA Gipuzkoako Binakako Pala Txapelketa gomazko pilotarekin** Finalerdia: Iruleak 2-Hernani 1. Aldats pilotalekuan, 10:30ean.
- **ERMUA Pertsona helduentzako olerki tailerra: 'La voz de la poesía'** Udal Liburutegian, 11:00etan.
- **ERMUA Esklerosi Anizkoitzaren Azoka Solidarioa** Merkatu Plazan, 13:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara.
- **MENDARO Jubilatuen dantzaldia eta txokolate-jana** Mendaroko Udalak eta Lagun Betikoak Elkarteak antolatuta, txokolate-jana eta dantzaldia, 17:00etan, udaletxean.
- **MENDARO Margoketa** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **ERMUA Musika: Dani Nel.lo & Organ Trio** Sarrera, 10 euro. Lobiano Kulturgunean, 20:00etan.
- **MALLABIA Idi-proben 36. txapelketa** Mallabiko Udalak antolatuta. Txapelketan sei parte-hartzaile izango dira, bi jardunalditan banatuta. Gaur, Isidro Erretegia, Olatzar eta Motxo lehiatuko dira. Udal Probalekuan, 21:00etan.
- **ELGOIBAR Aizu! asteburua** Aizu! Ostalarien elkarteak antolatuta. 13:00etan, kale-antzerkia. 18:00etan, Patxangoi elektrotxarangarekin kalejira. 20:00etan, Puya

taldearen kontzertua. 23:00etan, Willson And Willsonetis taldea, Fito & Fitipaldis taldearen omenez.

IGANDEA 8

- **DEBA Nesken Binakako XIV. Pala Txapelketa** Aldats pilotalekuan, 10:00etan.
- **ERMUA Esklerosi Anizkoitzaren Azoka Solidarioa** Merkatu Plazan, 11:00etatik 14:30era.
- **DEBA Kina jokoa** Arbil elkartean, 17:30ean.
- **DEBA Ipuin kontaketa saioa** Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 17:30ean.
- **MENDARO Musean ikasten** Gaztelekuan, 18:00etan.

ASTELEHENA 9

- **SORALUZE Irakurketa erronka: 'Asko dago ikasteko'** LH2 eta LH6 arteko neska-mutikoendako ekintza. Azaroren 9tik 13ra. Liburutegian, 11:00etan.
- **MENDARO Azaroko ekintza: 'Zientzialariak gara!'** Azaroaren 9tik 13ra. Ludotekan, 17:00etan.
- **ERMUA Tailerra: 'Txinako tearen kultura'** Ermuko Udaleko Kultura Sailak antolatuta. 18 urtetik gorakoentzat. 25 euro –22,50 euro, deskontuarekin–. Plaza kopuru mugatua. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.
- **ERMUA 'Komikizaleak', gazteentzako komikien irakurketa kluba: 'Artxipelagoa'** Udal Liburutegian, 18:30ean.
- **ELGOIBAR Liburu aurkezpena: 'Quo vadis, Ertzaintza?'** Duintasunak antolatuta, liburuaren egile Ahoztar Zelaietak aurkeztuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 18:30ean.
- **MALLABIA Idi-proben 36. txapelketa** Mallabiko Udalak antolatuta. Txapelketan sei parte-hartzaile izango dira, bi jardunalditan banatuta. Gaur, Kamiñoko, Julen Sarasua eta Belamendi Iehiatuko dira. Udal Probalekuan, 21:00etan.

ASTEARTEA 10

- **SORALUZE Arte Ederren Museora joateko izen-ematea** JendartEKIN proiektuaren baitan antolatutako irteera –proiektuko kideentzat–. Egun osoko irteera. Izen-ematea, online: *soraluze.eus/eu/agenda/irteera-arte-ederren-museoa;* edo udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara.
- **DEBA Eskuko telefonoak erabiltzen ikasteko tailerra** Arbil elkartean, 10:30ean. Arbil elkarte sozialaren ekimenez; saioak Mendatako ikasleek gidatuko dituzte. Tailerrean parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aurrez, elkartean bertan, astelehenetan nahiz asteazkenetan, 11:00etatik 12:30era.
- **ELGOIBAR Memoriaren Eguna** Elkarretaratzea, askotariko biktimak oroitu eta omentzeko. Giza Eskubideen parkean, 12:00etan.
- **ELGOIBAR Autobiografia feminista** Eguneroko ausardiaren kontakizunak partekatuko ditu Merlin Medinak, autobiografia feministaren barruan. Lila emakumeen etxean, 17:00etan.
- **ITZIAR Haurren eta gazteen irakurketa taldea: 'Munstro txikiak. Frankitxoren maskota berria'** Alaine Agirreren *Munstro txikiak. Frankitxoren maskota berria* liburua landuko dute. Idazleak berak gidatuko du saioa. Burugorri gainean, 17:30ean.
- **ELGOIBAR Bilera Urazandiko bizilagunekin** Elgoibarko Udalak bilera egingo du Urazandiko bizilagunekin, Errezabal egoitzaren obrari buruzko informazioa emateko. Jubilatuen Biltokian, 19:00etan.
- **DEBA Irakurketa Kluba: 'Poesia completa'** Maya Angelou idazlearen *Poesia completa* liburua landuko dute. Ainhoa Aldazabalek gidatuko du saioa, gazteleraz. Ostolaza Udal Liburutegian, 19:00etan.
- **ITZIAR Helduen irakurketa taldea: 'Barne zerbitzuak'** Katixa Agirre idazlearen *Barne zerbitzuak* liburua landuko dute. Alaine Agirre idazleak gidatuko du saioa. Burugorri gainean, 19:00etan.

ASTEAZKENA 11

- **SORALUZE Nagusien Kontseilua** Nagusien Kontseilua hileroko bilera egiteko bilduko da. Kalebarren 8an, 10:00etan.

OSTEGUNA 12

- **DEBA Hitzaldia: 'Familiak digitalki ahalduntzen; askatasunez hezi aro digitalean'** Hizlaria: Edurne Emazabel, hezkuntza digitalean aditua. Kultur Elkartean, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Udazkeneko mendi emanaldia** Igone Mariezkurrenak *Kangai mendietatik Altai magalera, Mongolia txirrindaz* solasaldia egingo du. Kultur Etxean, 19:00etan.

OSTIRALA 13

- **DEBA Hitzaldia: 'Aurretiazko borondateak'** Arbil elkartean, 11:00etan. Bi saio izango ditu, azaroaren 13an eta 27an, eta dokumentua izapidetzeko bi saioetara joan behar dela ohartarazi dute antolatzaileek. Plaza mugatuak dira –hogei lagunentzat–, eta izen-ematea Arbil elkartearen bulegoan egin behar da, astelehen edo asteazkenetan, 11:00etatik 12:30era.
- **ELGOIBAR Odol ateratzea** Txanda hartzeko: *gotatanta.eus*. Whatsappez: 623 32 84 08. Jubilatuen Biltokian, 16:30ean.
- **DEBA Odol ematea** Ifar kaleko Luzaro eskolan, 16:30ean. Aurrez txanda eskatzea beharrezkoa da. Horretarako, sartu *gotatanta.eus* webgunean edo deitu edo idatzi 623 91 23 03 telefono zenbakira
- **MENDARO Ekintza librea** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **DEBA Hitzaldia: 'Sexu industria: prostituzioa eta sexualizazioaren aurpegi berriak'** Gazte Asanbladaren 26. urteurrenaren harira antolatutako ekitaldia. Debako Kultur Elkartean, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Zazpigarren arteari buruzko kafe-tertulia** Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. Lilan, 18:30ean.
- **DEBA Ipuin kontaketa saioa: '80 amandre'** Ekitaldia *Ispilu(h)ari* programaren baitan antolatu du Udalak. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 20:00etan.
- **ERMUA Antzerkia: 'El hijo de la cómica'** Sarrera, 15 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.



MENDARO 'Gararock udazkenean': Maraca Diabloren kontzertua

OSTIRALA 13: Sarrera doan. San Agustin kulturgunean, 22:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

6 BARIKUA **Garitaonandia / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri**
7 ZAPATUA **Arriola / Lasuen-Elezgaray / A. Alcala / *M. Alves**
8 DOMEKA **Arriola / Lasuen-Elezgaray / A. Alcala**
9 ASTELEHENA **Fernandez / A. Zalduegi / I. Ugarte**
10 MARTITZENA **Yudego / A. Zalduegi / A.M. Baz**
11 EGUAZTENA **Oruesagasti / A. Zalduegi / M. Alves**
12 EGUENA **Barrenetxea / A. Zalduegi / I. Lecumberri**
13 BARIKUA **Soto / H. Burgoa / A. Alcala**

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:
Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK
Egunez: 09:00-22:00
Gauez: 22:00-09:00
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK
DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01
DEBA H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90
ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1- 943 74 01 40
ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77
ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03
ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
ERMUA A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26
MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14
MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38
SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR
HERRIKO ANTZOKIA
'En el corazón de la bestia'
Ostirala, 6: 19:00
Larunbata, 7: 19:00, 22:15
Igandea, 8: 19:00
Astelehena, 9: 21:00
'La patrulla canina: la Dino pelicula'
Igandea, 8: 16:30
'La bola negra'
Ostirala, 13: 19:00

ERMUA
ERMUA ANTZOKIA
'El precio de la red'
Larunbata, 7: 19:30
Astelehena, 9: 20:30
'La invitación'
Larunbata, 7: 22:00
Igandea, 8: 19:30
'Superthings: la película'
Igandea, 8: 17:00
'Nightborn'
Osteguna, 12: 20:30

DEBA
KULTUR ELKARTEA
'Familia de alquiler'
Igandea, 8: 19:00

EIBAR
COLISEO ANTZOKIA
'Sacamantecas' VOSE
Larunbata, 7: 17:00, 19:45, 22:30
Igandea, 8: 17:00, 20:00
Astelehena, 9: 19:30
'Naza' VOSE
Larunbata, 7: 19:45, 22:30
Igandea, 8: 17:00, 20:00
Astelehena, 9: 19:30
'Nuda propiedad'
Igandea, 8: 20:00
Astelehena, 9: 19:30
'Gungo eta harpetar jokoak'
Larunbata, 7: 17:00
Igandea, 8: 17:00

AZKEN BERBA

Batzuk hotz, besteak bero



NEREA ISASTI

Heldu da hotza gurera. Horrekin, etxea berotzeko beharra. Euskadin, %80k baino gehiagok gasa erabiltzen du. Arazoa? Gas naturalaren prezioa goi-goian dago, 2022tik altuen. Baina lasai. Euskalmetek dio udazkena eta negua ohi baino beroagoak eta hezeagoak izango direla. Eskerrak! Hala ere, askoren negua gorria izango da. Ez, ordea, gas enpresena: Naturgyk 2026ko lehen bederatzi hilabeteetan 1.758 milioi euroko mozkinak izan ditu, iaz baino %5,4 handiagoak; Total Energiesek, 7.421 milioi eurokoak, iaztik %91 hobetu du mozkin garbi metatua, petrolioaren prezioen igoerarengatik.

Berogailua ez da luxua, beharra da. Zer esanik ez jatekoa. Supermerkatuek mozkin errekorra lortu dute. Baina aipamen berezia gasolinaren sektoreak merezi du. Repsol, adibidez. Repsolek 5.006 milioi euroko mozkina lortu du irailera arte, iaz baino %325 gehiago!

Bankuak, berdin. Euskal bankuek irabazi errekorrak izan dituzte; zifra historikoak. Euskadi Espainiaren buruan dago, inbertsio funtsetara eta pentsio planetara bideratutako diru-ratioan. Bitartean, Euskadiko soldata ohikoena, INEren arabera, 25.000 euro da –gordinik!–, eta gutxiago ere irabazten dute askok. Esandakoa. Askoren negua, gorria. Gutxi batzuena, beroa.

BUKATZEKO

Sigma Bebe eta bere lagun txikiak

Umeentzako josteko makinak, baina ez jolaserako

Asier Orbea Ostolaza ELGOIBAR

Elgoibarko Estarta y Ecenarro enpresaren ikurra eta produktu izarra izan zen Sigma josteko makina. 1946 eta 1995. urteen artean milioika saldu zituzten mundu osoan, eta enpresak izan zuen katalogo zabalean leku berezia du Sigma Bebe izeneko modeloak, bitxienetakoa izan zelako. 1959. urtean merkaturatu zuten umeentzako josteko makina, baina ez zen haiek jolasean ibiltzeko sortua izan. Miniaturazko josteko makina bat zen, neskatoentzako lehen makina funtzionala izateko pentsatua, kutsu matxista nabarmena zuena, garai hartako jostailuek bezala. *Amak bezala, nik ere Sigmarekin josten dut,* zioen 1963. urteko Sigma josteko makinen erakusketa baten irudian ikus daitekeen iragarkiak –ondoko irudian–. Etxekoandreak izateko hezten zituzten neskatoak josten trebatu nahi zituzten, umetatik.



Mara Barrutia eta Rafa Zulaika, josteko makinei eskainitako erakusketan. A.ORBEA



Sigma Bebe modeloa iragartzeko iragarkia, 1963. urtean. MUSEOTIK

Erakusketa, museoan

Umeentzako josteko makinak ekoizteko ideia hura, baina, ez zuen Estarta y Ecenarrok asmatu, eta ez zen garaiko bizimodua baldintzatzen zuen frankismora mugatutako joera. Singer izan zen aitzindaria, Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) josteko makinen marka ospetsuak 1910. urtean atera zuen umeentzako lehen josteko makina. Hurrengo hamarkadetan joera zabaldu eta biral bihurtu zen, josteko makinak ekoizten zituzten munduko marka ia guztiek atera baitzuten berea. Gipuzkoara ere ailegatu zen olatua, Arrasaten, Eibarren (Alfa) eta Elgoibarren (Sigma) ekoitzi baitzituzten umeentzako josteko makinak.

Elgoibarko Makina Erremintaren Museoan Sigma izeneko areto bat dute, eta hantxe dute ikusgai marka eta jatorri askotariko hogei makina txikirekin osatu duten bilduma "txiki bezain interesgarria", antolatzaileen esanetan. *Sigma Bebe eta bere lagun txikiak* izena jarri diote Ondarearen Europako Jardunaldien baitan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatu duten erakusketari. Astelehenean zabaldu zuten, eta abenduaren 18ra arte egongo da zabalik, museoaren ohiko ordutegian: 10:00-13:00 eta 15:00-17:00, astelehenetik ostiralera. Sarrerak 5 euro balio du. Josteko makina txiki haien ezaugarri teknologiko, sozial eta estetikoei balioa emateaz gain, haiek sortu zituzten euskal industriei aitortza egitea da antolatzaileen helburua. Eta, horrekin batera, jostailuen munduaren eta genero-rolen arteko loturaren inguruko hausnarketa sustatu nahi dute. Ildo horretan, beste bi ekimen ere antolatu ditu museoak: batetik, mahai-inguru bat eta kontzertu bat prestatu dute azaroaren 12rako, 18:30ean. *Josteko makinak: ondarea gure eskuetan* izenburua izango du solasaldiak, eta bost museotako ordezkariek hitz egingo dute: Cristobal Balenciaga Museoa, Armagintza Museoa, San Telmo Museoa, Gordailua eta Makina-erreminta Museoa. Doakoa den arren, aldez aurretik izena eman behar da: 688 76 44 76 edo *museoa@museoa.eus.* Bestetik, azaroaren 14rako tailer bat antolatu dute: *Familia bisita: ondarea gure eskuetan*. Familientzat bereziki pentsatutako ekimena dela aurreratu dute. 10:30etik 13:30era egingo dute. Doakoa izango da.

Jostailuen eta genero-rolen arteko loturaren gaineko hausnarketa sustatu nahi dute

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

PERRE TXIKO KERIAK

